## Eusko Jaurlaritzak LOMCE ezarri du Heziberriren bidez

Urkulluren gobernuak LOMCEren oinarrizko erasoak onartzen dituen Heziberriren curriculum dekretuak argitaratu ditu. ELAk azken hilabete luzeetan salatu duen moduan, urriaren 16an Eusko Jaurlaritzak argitaraturiko Heziberriren curriculum dekretuek hezkuntza sistema osoa zentralizatu eta kontrolatu eta edukia nahiz pedagogia bera kontrolatzeko LOMCEk ezartzen dituen tresna guztiei bide ematen die.

Espreski aipatzen da “arlo edo ikasgai bakoitzeko oinarrizko konpetentziak, bere osagaiak, helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak oinarrizko arautegiaren baitakoak” izango direla.

## El Gobierno de Navarra atenderá a la plantilla de la CUN en el SNS-Osasunbidea

ELA apoya la decisión del Gobierno de Navarra de atender a los y las trabajadoras de la Clínica Universitaria y del resto de empresas del Opus Dei en la red sanitaria pública del SNS-Osasunbidea. Hasta ahora, se derivaba a ese colectivo a un centro privado como la CUN, en el que no existe la atención primaria integral.

## El Gobierno de Navarra recorta plazas en euskara y consolida la discriminación en la OPE de Enseñanza

El Gobierno de Navarra ha elegido la peor de las opciones que estaban sobre la mesa en el tema de la OPE de enseñanza: recortar las plazas en euskara y consolidar la discriminación lingüística (la doble lista). Ante el recurso planteado por el Estado, el Departamento de Educación ha recortado 120 plazas en los sectores con más necesidades de personal: educación Infantil y primaria en euskara.

## Gipuzkoako Aldundiak %0,6ko igoera bertan behera utzi du

ELAk 2014ko maiatzean Gipuzkoako Foru Aldundiak langileei eginiko soldata igoera bueltatzeko Foru Gobernuko Kontseiluak hartutako erabakia errefusatzen du. Foru Aldundiko arduradunei beraien erabakia bertan behera utzi dezatela exijitzen die ELAk, eta, bide batez, ez ditzatela langileak dirua bueltatzera derrigortu, ez eta ordaindu beharreko kopuruari deskonturik egitea ere. Aldundiak berea den negoziazio esparrua defendatu behar du, eta, kasu honetan, neurriak hartu behar ditu langileen eskubideen alde.




**Jazarpen sindikala Kirolbet-en »** Kirolbet Teleapustuak Promotora de Juegos y Apuestas S.A. enpresak ELAko ordezkariei eta afiliatuei jazarpena egiten diela salatu du sindikatuak Bizkaiko Lan Ikuskaritzan. Uztaileko hauteskundeak egin zirenetik hona enpresako zuzendaritzak behin eta berriz inpugnatu du prozesua, baina inpugnazio guztiak gaitzetsiak izan dira. Ordezkari sindikala hautatu eta gero, enpresako zuzendaritzak erasoan jarraitu du ordezkariaren aurka, eta baita hauteskundeak sustatu zituzten langileen aurka ere.

**Kutxabank pretendía reducir la representación sindical de ELA »** El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha estimado íntegramente la demanda de conflicto colectivo formulada por ELA contra Kutxabank, declarando legítimo su propósito de contar en Kutxabank con siete delegados/as sindicales, en contra de las pretensiones del Banco de restringir a tres el número de los representantes.

**Paros en la hostelería de Araba »** Convocados por ELA, LAB, CCOO y UGT, los trabajadores y trabajadoras de la hostelería de Araba protagonizaron paros de cuatro horas en diciembre (de 12 a 14 y de 21 a 23 horas) para exigir la negociación del convenio. La patronal plantea recortes en la practica totalidad de los puntos, incrementar la flexibilidad, doble escala salarial y no incluye la ultraactividad.

**Gastronomía Baska presenta un ERE de extinción para 17 trabajadores/as »** La última adjudicación de comedores escolares de gestión directa llevada a cabo por parte del Departamento de Educación ha dejado fuera del servicio a la empresa Gastronomia Baska. Eso ha supuesto la presentación por parte de la empresa de un ERE de extinción para 17 trabajadoras que no tienen derecho a subrogación. ELA y LAB han propuesto la creación de una bolsa de trabajo para intentar recolocar a estas trabajadoras en el sector.

## DESDE IPARRALDE
## IPARRALDETIK

# Nolaz independentista gehiago Hernanin Baionan baino?

PEIO ETXEBERRI-AINTXARTEK ABERTZALETASUNAK IPAR ZEIN HEGO EUSKAL HERRIAN IZAN DUEN EBOLUZIOA AZTERTZEN DU BERE AZKEN LIBURUAN

**› XABIER HARLUXET**






**Peio Etxeberri-Aintxart (Baiona, 1973) Lapurdiko historialari, idazle eta argitalpen zuzendaria da. Elkar argitaletxean frantsesez argitaratu berri duen *Zergatik independentista gira Hernanin, eta Baionan ez?* liburuaren haritik zonbait argitasun ekartzen dizkigu.**

**-Nondik etorri zaizu horrelako liburu baten egiteko xedea?**

-Joan zen udan, Frantziatik bisitan heldu lagun batek hemengo aktualitate politikoaren berri eskatu zidan, bereziki jakin nahi izan zuen zergatik abertzaletasuna hain azkarra zen Hegoaldean eta hain ahula Iparraldean. Ohartu nintzen ez zela hain erraza gai hori modu xinple batez azaltzea, historia luzean zehar hainbat elementu sozial, ekonomiko eta politiko dantzan agertzen zirelakoan. Laguna Parisera itzuli ondotik, iduritu zitzaidan hemengo jendearentzat ere, liburu gai ederra bazela.

**-Zein dira gaur egun ezagutzen ditugun Estatu frantses eta españolak Estatu izaitera eraman dituzten fase ezberdinak?**

-Lehen lehenik, oso garantzitsua da ulertzea Estatu-nazio baten sortzea ez dela big-bang antzeko zerbait, egun batetik bestera iragaten dena; prozesu luzea da, pixkanaka eraikitzen dena. Batzutan, batez ere Estatu frantsesean, iduri du nazio frantsesa betierekoa dela eta jendeak betidanik nazio horren parte izateko borondate amankomuna adierazi zuela. Baina ikuspegi historiko batetik eta erabilpen politikorik gabe, errealitatea ez da hain xinplea: nazio frantsesa ez da piztu, eraiki baizik, eta Estatu batek du eraikuntza hori bultzatu. Baina Estatua ere mende luzeetan eraiki zen, ez da atzoko kontu bat...

Beraz laburbiltzeko, erran nezake hiru fase nagusi badirela. Lehen fasean, goi-erdi aroko ehunka printzerri txikietatik erregе Estatu gutxi batzuk inposatzen dira; fase horretan (IX-XVII mendeen artean), Nafarroako erresumak porrot egiten du eta Frantziakoa zein Kastilla-Aragoikoa nagusitzen dira, besteak beste. Bigarren fasean, hainbat faktorek eragiten dute Estatu horietatik batzuk aski azkarrak bilakatzen direla beren *zentro* politikoak *periferia* guziak mendera ditzaten; fase horretan (XVII-XIX mendeen artean), Estatu frantsesa azkar agertzen zaigu, Espainiako monarkia ahultzen delarik. Hirugarren fasean, Estatu azkarrek beren nazio ikuspegia erralitate egin nahi dute eta horretarako tresnak baliatzen dituzte; fase horretan (XIX.-XX mendeetan), aberri frantses handiak euskal aberri txikia iresten du, luzaz español aberriri ezak periferietako aberri proiektuei garatzeko aukera uzten dielarik.

**El libro *¿Por qué somos independentistas en Hernani y en Baiona no?* analiza la evolución del abertzalismo en Iparralde y en Hegoalde**

**-Gaur egun Hego Euskal Herriaren eta Ipar Euskal Herriaren artean, arlo politikoan bi itxura arras ezberdinak ditugu. Zerk esplikatzen du hori? Noiz dira bideak urrundu?**

Lehen-lehenik, Frantziako eta Espainiako Estatuen arteko mugak du Euskal Herria zatitu, puxkaka, erdi aroan zehar. Luzaz, muga arras teorikoa zen eta hemengo jendearentzat eragin berezirik ez zuen; baina Estatu modernoaren eraketa eta batez ere absolutismoa indartzen hasi direnetik (XVII. mendetik aurrera), zerga-amaraunak eta kontrol administratibo eta militarrek Euskal Herriko bideak joanago eta gehiago urrundu dituzte. Baina urruntze nagusia arimarena izaten da, eta Iparraldeko euskaldunak nazio frantsesaren alde hiltzen hasi direlarik (Lehen mundu gerran batez ere), auzia lotua da.

**-Zergatik Euskal Herrian ez da paradarik izan Frantses edo Español Estatuan bezala "nazio ezagutu" baten bilakatzeko parada eta "Estatu-Nazio" bilakatzeko parada ?**

-«Historia ez bazen horrela gertatu, horrela baizik, emaitza hau izanen zen» nehork ez dezake segurta. Euskal Herria bilaka zitekeen erdi aroko Estatu hurbilena Nafarroako erresuma da (XI. mendeko Antxo handiaren garaian bereziki), zalantzarik gabe. Baina euskal Estatu-nazio bat bilakatuko ote zen? Nehork ez daki eta ez dugu sekulan jakinen, bide horiek hartu aurretik desagertu baita. Baliteke geroan Euskal Herria Estatu-nazio bat bilakatzea, baina historian izan den balizko parada bakarra Nafarroako erresumarekin galdu zen.

GIZARTE EREDUA
POLÍTICA SOCIAL

# Soldata eta gutxiengo duintasuna

ELAK HILEKO 1.200 EUROKO GUTXIENGO SOLDATA BAT 12 ORDAINALDITAN (14.400 EURO URTEAN; 1.028,57 EURO 14 ORDAINALDITAN) ESKATZEN DU




› IÑAKI SALABERRI

**Sistema ekonomiko kapitalistaren funtsezko oinarri den merkatuak** prezioak eskari eta eskaintzaren bitartez ezartzen ditu, teoriak dioenez. Gainera, prezioak era bizkor eta eraginkorrean –perfektuan– doitzen omen dira muga edota araurik ez dagoenean, hala nola lege, botere-erlazio eta abar tartean sartzen ez direnean.

Baina hori ezinezko hipotesi bihurtzen da teoriatik ateratzean, nolabaiteko utopia. Mundua, errealitatea eta bizitza ez baitira perfektuak, edonon daudelarik muga geografiko, psikologiko, politiko, ekonomiko eta beste hainbat, horien artean aldatzeko edota desegiteko zailenetakoa –muga fisikoez gain– jabego boterea delarik. Sistemaren funtsa den jabegoaren banaketa finkatu baino baldintzatzen duen oinarrizko faktore bat gutxiengo soldata da.

**Gutxiengo soldata prezio minimo bat da,** langileek euren denbora diru-truke saltzeko duten beheko muga. Gutxiengo hori, hainbat kasutan, hitzarmen edo adostasunen bidez erabakitzen da, hala nola zenbait sektore edota enpresen kasuetan. Baina era orokorrean erabakia baino ezarpena izan ohi da: Hego Euskal Herriko kasuan,

**En HEH tenemos un sueldo mínimo tan miserable que no permite a quienes lo perciben salir de la situación de pobreza en la que se encuentran. ELA propone un salario mínimo de 1.200 euros mensuales**

**Se debe establecer un nuevo SMI más justo, adecuado y digno. Las excusas de falta de riqueza o aumento del desempleo no valen**

adibidez, Estatu espainiarreko Gobernuak ezartzen du lege bidez gutxieneko soldata. 2016rako soldata minimoa hileko 655,08 eurotan 14 ordainalditan ezarri da Estatu espainiarrean eta, beraz, baita HEHn ere (12 alditan 764,40 euro izanik).

Eta kopuru hori, egokia al da? Justua da? Duina da? Zer da kopuru hori? 764,40 euro hilean 12 alditan, urtean 9.172,80 euro dira, edozein kalkulagailuk adierazi dezakeenez.

Baina zehaztuz, kopuru hori HEHn daukagun pobrezia-mailaren azpitik kokatzen da (azken datuaren arabera EAEn 811,90 euro eta Nafarroan 850,09), eta hori ezin da duina izan, inork ez baitu egiten meritu txiro izateko eta, are gehiago, inori bere denbora eta esfortzua emateagatik ezin zaio pobrezia eman ordainetan.

Justua ote den aztertzean, batez bestekoa adierazle bat izan daiteke; kasu honetan, HEHn pertsona bakoitzeko (haur, gazte, nagusi, ezindu eta beste guztiak barneratuz) urtean sortzen den aberastasun ofizial eta monetarioa –BPG per capita deritzona– ia 30.000 eurokoa da. Beraz, pertsona orok izan lezake kopuru hori eskuratu edota erabiltzeko eskubidea justizia eta ekitatearen aldetik, nahiz eta bakoitzaren esfortzu eta beharrak kontuan izan beharko liratekeen justizia horri buruz hobeki hitz egiteko.

Eta egokia ote den egiaztatzeko, urtean lanaldi osoa lan egiten duten pertsonei eta soilik 9.172,80 euroko soldata dutenei galdetzea besterik ez dugu; eta beraien iritziaz fidatuko ez bagina, beraien kolkoan jartzea besterik ez dugu. Norbaiti egokia iruditzen al zaio urtean 1.700 ordu inguru lan eginda 9.172,80 euroko diru-sarrerak lortzea?



**Ikus dezagun zer gertatzen den Europar Batasunean** soldaten gutxieneko kopuruekin, bada, argibideren bat lortze arren: estatu gehienek legez ezarritako soldata minimoa dute, baina ez denek. Dutenek, gainera, oso kopuru ezberdinak dituzte ezarrita: txikiena duenak –Bulgariak, 194,29 euro hilean– handienaren –Luxenburgo, 1.922,96 euro hilean– hamarrena besterik ez du.

Baina estatu bakoitzean bizi-baldintzak, aberastasuna eta eros-ahalmena oso ezberdinak direla kontuan izanik, gutxiengo soldata batez besteko aberastasunarekin alderatzean –lehen aipatutako BPG per capita horrekin– gutxiengo soldata erlatiboa lortzen da: Europako goi-muturrean Estatu frantziarra dago, bere soldata minimoa batez besteko aberastasunaren %53,4koa baita eta, aitzitik, beheko muturrean Luxenburgo dugu, %24,8arekin. Hego Euskal Herrian, %31,3koa da maila hori (Eslovakia eta Errumaniaren artean, zehazki) eta Estatu espainiarrean %40.

Hori ikusita, badago aukerarik gutxiengo soldata ezberdinak ezartzeko. Gainera, ezin erabili daiteke langabeziaren aitzakia soldata altuagoak eskatzeko orduan, gutxiengo soldata altu batek ez duelako langabezia altuagoa eragiten, ezin baita erlazionatu soldata minimoa langabezia tasarekin: langabezia maila altuena duen estatuak –Greziak, %24,2– %47,8ko gutxiengo soldata erlatiboa du, langabezia maila baxuena duen estatuaren oso antzeko maila duelarik –Alemania, %4,5eko langabezia maila eta %46,3ko gutxiengo soldata erlatiboaz–.

Adibide gisa, HEHn Europar Batasuneko gutxieneko soldata erlatibo ez haztatua (BPG per capitaren %38,71) aplikatuz, hileko 946,15 euroko kopurua lortzen da 12 ordainalditan (11.353,80 euro urtean; 810,99 euro 14 ordainalditan), orain duguna baino %23,8 altuagoa. Kopuru hori izango bagenu HEHn, 28 kidetako EBn hamahirugarren tokian kokatuko ginateke (Irlanda eta Estatu espainiarraren artean hain zuzen): orain hamazortzigarrenean gaude.

Baina hori ez litzateke nahikoa, eta horregatik ELAn honako proposamena egiten dugu: hileko 1.200 euroko gutxiengo soldata bat 12 ordainalditan (14.400 euro urtean; 1.028,57 euro 14 ordainalditan). Hau, HEHko BPG per capitaren %49,1 da, ikusi dugunez Europan dauden maila ezberdinen artean egongo litzatekeelarik: horrelako soldata batekin, Europa buruko laugarren postuan kokatuko ginateke Grezia (%47,8) eta Esloveniaren (%49,2) artean.

**Hileko 1.200 euroko gutxiengo soldata bat 12 ordainalditan.** Gaur egun dagoena baino justuagoa, duinagoa eta egokiagoa da 1.200 euroko gutxiengo soldata bat HEHn, lehen aipaturiko arrazoiengatik eta, gainera, Europar testuinguruari so egitean, bizi maila eta kalitate altuagoa daukagulako HEHn Grezian, Polonian edota Estatu espainiarrean baino, besteak beste (eta, aldiz, gaur egun estatu horietan gutxiengo soldata erlatiboa BPG per capitarekiko altuagoa da HEHn baino; baina baxuagoa izango litzateke aipaturiko 1.200 euroko minimoarekin).

Guzti honengatik, ez da onargarri inposatu diezaguten Euskal Herriko langileoi duintasunaren prezioa Estatu frantziar zein espainiarretik, eta are gutxiago estatu horiek gure herrialdearen izaera eta herritarren egoera, beharrak eta nahiak sistematikoki baztertu egiten dituztela kontuan izanda.

**Azkenik, aipatzekoa da gutxitan aztertu den gehienezko soldata bat ezartzearen inguruko eztabaida.** Normalean, ez dago aberastasun edota soldata maximoa finkatzen duen arau edo mugarik, oro har zergen bidezko birbanaketa planteatzen baita soil-soilik (batzuetan progresiboa den birbanaketa, baina beste askotan proportzionala edo erregresiboa dena).

Gehienezko soldata edo aberastasuna muga fiskal batekin ezarri liteke, inork izan ez lezan kopuru horretatik gora diru-sarrera edo kapital. Hego Euskal Herrian ditugun zerga eskuduntzekin, diru-sarrera edo etekin maila jakin batetik gora %100eko tasa marjinal batekin ezar liteke.

Gehien erabili diren mugak gehienez 5 eta 25 gutxieneko soldataren adina izan dira, HEHn egun dugunaren arabera hileko 3.822 euro eta 19.110 euro litekeena, hurrenez hurren (urtean 45.864 euro eta 229.230 artean).

Horrelako gehienezko soldata hipotetiko batek argi adieraziko luke kapitalista eta enpresari handi gehienek dituzten diru-sarreren bidegabekeria, askok eta askok milioi bat eurotik gora irabazten baitute urtean, urteko milioi bat euroko soldata bakar batek 109 gutxieneko soldata suposatzen dituelarik.

## Es hora de plantear la necesidad de establecer un salario máximo y una ganancia máxima por rendimientos capitalistas

## TRABAJADORES/AS POBRES

**El sueldo mínimo que tenemos en Hego Euskal Herria -764,40 euros en 12 pagas anuales- es tan miserable que está por debajo del umbral de pobreza (de 811,90 y 850,09 euros al mes en CAPV y Navarra, respectivamente). Esta cantidad es insuficiente: no es ni adecuada ni justa, y mucho menos digna.**

**Frente a esta situación, tenemos diversos ejemplos en la Unión Europea que muestran el amplio margen que existe a la hora de establecer un salario mínimo superior, y las excusas que justifican un sueldo mínimo tan bajo por falta de riqueza o elevado desempleo no son veraces.**

**Por ello, se debe establecer un nuevo SMI superior al actual: en ELA proponemos un salario mínimo de 1.200 euros al mes en 12 pagas, más justo, adecuado y digno que el existente. Pero no sólo eso: un salario mínimo de 1.200 euros supone cerca del 50% del PIB per cápita de HEH (indicador que incluye a toda la población al completo) con lo que nos situaríamos al nivel de los países europeos con los que nos comparamos, véase Estado francés y alemán, entre otros.**

**Además, se debe plantear a la sociedad la necesidad de imponer un salario máximo y una ganancia máxima por rendimientos capitalistas mediante la aplicación de un tipo marginal del 100% a partir de cierta cantidad; este tope fiscal serviría para reducir la brecha social y, a través de mecanismos redistributivos, mejorar las condiciones de vida de la mayoría de la ciudadanía, así como incrementar el gasto público y desarrollar e impulsar el estado de bienestar.**

# LEGEAREN BUELTAK
# PAGINAS JURIDICAS

## CALENDARIO LABORAL 2016 CAPV y NAVARRA

### Fiestas retribuidas y no recuperables

**Jaiegun ordaindu eta berreskuraezinak**

**1 › Urtarrilak 1 de enero:** Urte berria / Año nuevo.

**2 › Urtarriak 6 de enero:** Erregeak / Reyes.

**3 › Martxoak 24 de marzo** Ostegun Santua / Jueves Santo.

**4 › Martxoak 25 de marzo:** Ostiral Santua / Viernes Santo.

**5 › Martxoak 28 de marzo: :** Bazko Astelehena / Lunes de Pascua.

**6 › Uztailak 25 julio:** Donejakue / Santiago.

**7 › Abuztuak 15 agosto:** Andra Mari eguna / Asunción.

**8 › Urriak 12 de octubre:** Pilarika / El Pilar.

**9 › Azaroak 1 noviembre:** Domusantua / Todos los Santos.

**10 › Abenduak 6 de diciembre:** Konstituzioa / Constitución.

**11 › Abenduak 8 de diciembre:** Sortzez garbiaren eguna/ Inmaculada.

**EAEko JAIEGUNAK / FIESTAS DEL TERRITORIO DE LA CAPV**

**12 › Urriak 7 de octubre:** Lehen Eusko Jaurlaritzaren 80. urteurrena / 80 aniversario del primer gobierno vasco.

**13 › Gainera / además:**

- ***› Araba / Alava: Apirilak 28 de abril:** Prudentzio donea / San Prudencio.
- ***› Bizkaia : Uztailak 4 de julio:** Balentin Berrio-Otxoa.
- ***› Gipuzkoa : Irailak 9 septiembre:** Arantzazuko Andramari / Virgen de Aranzazu.

**NAFARROAko JAIEGUNAK / FIESTAS DEL TERRITORIO DE NAVARRA**

**12 › Abenduak 3 de diciembre: Nafarroa.** San Franzisko Xabierkoa / San Francisco Javier.

**13 › Abenduak 26 de diciembre: Nafarroa.** Eguberri bigarrena/ Segunda fiesta de Navidad.

**TOKIAN TOKIKO JAIEGUNA / FIESTA LOCAL**

**14 ›** Gainera, beste jaiegun bat, **tokian tokikoa**: Además, otro día con carácter de **fiesta local.**

### Tabla de retenciones del IRPF de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa »

**Sobre rendimientos de trabajo y prestaciones por desempleo**

| Importe rendimiento anual | 0 hijos | 1 h. | 2 h. | 3 h. | 4 h. | 5h. | Más |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hasta 11.690 | - | - | - | - | - | - | - |
| Más de 11.690 | 1 | - | - | - | - | - | - |
| Más de 12.160 | 2 | - | - | - | - | - | - |
| Más de 12.670 | 3 | 1 | - | - | - | - | - |
| Más de 13.220 | 4 | 2 | - | - | - | - | - |
| Más de 13.820 | 5 | 3 | - | - | - | - | - |
| Más de 14.480 | 6 | 4 | 2 | - | - | - | - |
| Más de 15.210 | 7 | 5 | 3 | - | - | - | - |
| Más de 16.010 | 8 | 6 | 4 | - | - | - | - |
| Más de 17.210 | 9 | 7 | 5 | 2 | - | - | - |
| Más de 18.620 | 10 | 9 | 7 | 4 | - | - | - |
| Más de 19.960 | 11 | 10 | 8 | 5 | 1 | - | - |
| Más de 21.470 | 12 | 11 | 9 | 6 | 3 | - | - |
| Más de 22.960 | 13 | 12 | 10 | 8 | 4 | 1 | - |
| Más de 24.350 | 14 | 13 | 11 | 9 | 6 | 3 | - |
| Más de 26.650 | 15 | 14 | 13 | 10 | 8 | 4 | - |
| Más de 29.160 | 16 | 15 | 14 | 12 | 10 | 6 | - |
| Más de 32.190 | 17 | 16 | 15 | 13 | 11 | 8 | - |
| Más de 36.300 | 18 | 17 | 16 | 15 | 13 | 10 | 3 |
| Más de 39.270 | 19 | 18 | 17 | 16 | 14 | 12 | 5 |
| Más de 42.310 | 20 | 19 | 18 | 17 | 15 | 13 | 7 |
| Más de 45.450 | 21 | 20 | 20 | 18 | 17 | 15 | 9 |
| Más de 48.950 | 22 | 21 | 21 | 19 | 18 | 16 | 11 |
| Más de 52.900 | 23 | 22 | 22 | 21 | 19 | 18 | 12 |
| Más de 56.270 | 24 | 23 | 23 | 22 | 21 | 19 | 14 |
| Más de 60.000 | 25 | 25 | 24 | 23 | 22 | 20 | 16 |
| Más de 64.280 | 26 | 26 | 25 | 24 | 23 | 22 | 17 |

*** Para trabajadores/as activos discapacitados/as, el porcentaje de retención que resulte de la aplicación de la tabla general se minorará en los puntos que señala la siguiente escala:**

### Trabajadores activos discapacitados »

| Importe rendimiento anual | Minusvalía entre 33% y 64% | -Minusvalía entre 33% y 64% calificada<br>-Minusvalía igual o superior al 65% |
|---|---|---|
| Hasta 22.960 euros | 9 | 12 |
| De 22.960,01 a 29.160 | 7 | 12 |
| De 29.160,01 a 42.310 | 6 | 10 |
| De 42.310,01 a 48.950 | 5 | 10 |
| De 48.950,01 a 69.190 | 4 | 8 |



**Nueva tabla, vigente desde el 01/01/2016**

## Tabla de retenciones del IRPF en Navarra »

**Sobre rendimientos del trabajo y prestación por desempleo**

| Importe rendimiento anual | 0 hijos | 1 h. | 2 h. | 3 h. | 4 h. | 5 h. | 6h. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Más de 11.250 | 4 | 2 | - | - | - | - | - |
| Más de 12.750 | 6 | 4 | 2 | - | - | - | - |
| Más de 14.250 | 8 | 6 | 4 | 2 | - | - | - |
| Más de 16.750 | 10 | 8 | 6 | 4 | 1 | - | - |
| Más de 19.750 | 12 | 11 | 9 | 7 | 6 | 4 | - |
| Más de 23.250 | 13,5 | 12,2 | 11,5 | 8,7 | 7,7 | 5,7 | 3,6 |
| Más de 25.750 | 14,6 | 13,3 | 12,6 | 9,9 | 9,2 | 7,8 | 5,8 |
| Más de 28.250 | 15,8 | 14,5 | 13,7 | 12,4 | 10,7 | 8,9 | 7,9 |
| Más de 32.250 | 17 | 16 | 15 | 13,6 | 12,5 | 10,8 | 10 |
| Más de 35.750 | 18,1 | 17,1 | 16,5 | 14,7 | 14 | 13,3 | 12,2 |
| Más de 41.250 | 20 | 19 | 18,3 | 16,9 | 16,2 | 15,5 | 13,7 |
| Más de 48.000 | 22,1 | 21,5 | 20,9 | 18,9 | 18,3 | 17,7 | 16,6 |
| Más de 55.000 | 24,1 | 23,5 | 23 | 22 | 21,5 | 20,9 | 19,8 |
| Más de 62.000 | 26,1 | 25,5 | 24,5 | 24 | 23,5 | 22,9 | 21,9 |
| Más de 69.250 | 28,3 | 27,7 | 27 | 26,6 | 25,5 | 25 | 24,4 |
| Más de 75.250 | 29,6 | 29,2 | 28,3 | 27,3 | 27,2 | 26,2 | 26,1 |
| Más de 82.250 | 30,8 | 30,5 | 30 | 29,4 | 29 | 28,3 | 27,7 |

## Pensiones mínimas para el 2016 »

**euros/año**

| Clase de pensión | Con cónyuge a cargo | Sin cónyuge a cargo | Con cónyuge no a cargo |
|---|---|---|---|
| **JUBILACIÓN** | | | |
| *Titular con 65 años | 10.988,60 | 8.905,40 | 8.449,00 |
| *Titular menor de 65 años | 10.299,20 | 8.330,00 | 7.872,20 |
| *Titular con 65 años procedente de gran invalidez | 16.483,60 | 13.358,80 | 12.674,20 |
| **INCAPACIDAD PERMANENTE** | | | |
| *Gran invalidez | 16.483,60 | 13.358,80 | 12.674,20 |
| *Absoluta | 10.988,60 | 8.905,40 | 8.449,60 |
| *Total: titular con 65 años | 10.988,60 | 8.905,40 | 8.449,60 |
| *Total: titular con edad entre 60 y 64 años | 10.299,80 | 8.330,00 | 7.872,20 |
| *Total derivada de enfermedad común menor de 60 años | 5.538,40 | 5.538,40 | 5.045,04 |
| *Parcial del régimen de accidente de trabajo: titular con 65 años | 10.988,60 | 8.905,40 | 8.449,00 |
| **VIUDEDAD** | | | |
| *Titular con cargas familiares | | 10.299,80 | |
| *Titular con 65 años, o discapacidad en grado igual o superior al 65% | | 8.905,40 | |
| *Titular con edad entre 60 y 64 años | | 8.330,00 | |
| *Titular con menos de 60 años | | 6.742,40 | |
| **ORFANDAD** | | | |
| *Por beneficiario | | 2.720,20 | |
| *Por beneficiario menor de 18 años con una minusvalía igual o superior al 65% | | 5.353,60 | |
| En la orfandad absoluta, el mínimo se incrementará en 6.742,40 euros/año, distribuidos, en su caso, entre los beneficiarios | | | |
| **EN FAVOR DE FAMILIARES** | | | |
| *Por beneficiario/a | | 2.720,20 | |
| Si no existe viudo/a ni huérfano pensionistas: | | | |
| *Un/una solo/a beneficiario/a, con 65 años | | 6.575,80 | |
| *Un/una solo/a beneficiario/a, menor de 65 años | | 6.195,00 | |
| *Varios/as beneficiarios/as: el mínimo asignado a cada uno/a se incrementará en el importe que resulte de prorratear 4.022,20 euros/año entre el número de beneficiarios/as | | | |
| **SOVI** | | | |
| *Vejez, invalidez y viudedad | | 5.698,00 | |
| -No concurrentes con otras pensiones públicas | | 5.532,80 | |
| -Concurrente con otras pensiones públicas | | | |
| **PENSIONES NO CONTRIBUTIVAS** | | | |
| *Jubilación e invalidez | | 5.150,60 | |

* Para trabajadores/as activos discapacitados/as: el porcentaje de retención que resulte de la aplicación de la tabla general se minorará en los puntos que señala la siguiente escala:

### Sobre rendimientos de trabajadores discapacitados »

| Importe rendimiento anual | Minusvalía igual o superior al 33% | Minusvalía igual o superior al 65% |
|---|---|---|
| De 11.250,01 hasta 23.250 euros | 5 | 15 |
| De 23.250,01 hasta 41.250 | 3 | 15 |
| De 41.250,01 hasta 94.750 | 2 | 8 |
| De 94.750,01 en adelante | 2 | 5 |

### Salario mínimo interprofesional 2016 »

| | |
|---|---|
| Salario mínimo día | 21,84 euros |
| Salario mínimo mes | 655,20 euros |
| Salario mínimo año | 9.172,80 euros |

### IPREM (Indicador público de renta de Efectos Múltiples) 2016 »

| | |
|---|---|
| IPREM diario | 17,75 euros |
| IPREM mensual | 532,51 euros |
| IPREM anual | 7.455,14 euros ó 6.390,13 euros (*) |

(*) Según que la respectiva norma se refiriera anteriormente al SMI en cómputo anual, o excluyendo expresamente las pagas extras.



# CALENDARIO PENSIONES MÍNIMAS REVALORIZACIONES COTIZACIONES RETENCIONES SMI IPREM 2016

## Revalorización de pensiones de la Seguridad Social para el 2016 »

### I.- BENEFICIARIOS/AS DE UNA SOLA PENSION

Las pensiones (de incapacidad permanente, jubilación, viudedad, orfandad, y en favor de familiares), en su modalidad contributiva, y causadas con anterioridad a 1 de enero del año 2016, se revalorizarán el 0,25 %, sin que se pueda superar la cantidad de 2.567,28 euros mensuales. Dicho porcentaje se aplica sobre el importe mensual que tuviera la pensión a 31 de diciembre de 2015.

### II.- BENEFICIARIOS/AS DE MÁS DE UNA PENSION

* Las pensiones concurrentes del sistema de la Seguridad Social se revalorizan aplicando a cada una el 0,25 %, sin que la suma, una vez revalorizadas, pueda ser superior a 2.567,28 euros mensuales.

* Si concurren pensiones SOVI con cualquier otra pensión:

- Las pensiones del SOVI no se revalorizan.
- No obstante, si la suma de las pensiones, una vez revalorizadas, no alcanzan en cómputo anual la cuantía fijada para la del SOVI (5.698,00 euros), ésta se revaloriza en un importe igual a la diferencia resultante.
- Caso de concurrencia de pensiones de vejez o invalidez SOVI con la de viudedad, el importe de las pensiones de vejez o invalidez SOVI será de 5.532,80 €, sin que en cualquier caso la suma pueda ser superior al doble del importe de la pensión mínima de viudedad para beneficiarios con 65 ó más años (8.905,40 €).

* La concurrencia de pensiones de la Seguridad Social con pensiones de otros organismos y empresas públicas tiene el tratamiento de las pensiones concurrentes de la Seguridad Social.

No obstante, no se tienen en cuenta a efectos de la revalorización de las pensiones de la Seguridad Social los complementos de pensiones otorgados, en virtud de convenio colectivo o reglamento interior, a trabajadores/as que, como consecuencia de reestructuración de plantilla o causa similar, anticipen la edad de jubilación, obteniendo la pensión con aplicación del coeficiente reductor de aquélla; aunque sí a efectos de aplicar el límite máximo de 2.567,28 euros mensuales.

## Bases de cotización a la S.S. 2016»

| Grupos y categorías profesionales | Bases mínimas Euros/mes | Bases máximas Euros/mes |
|---|---|---|
| 1. Ingenieros/as y licenciados/as | 1.067,40 | 3.642,00 |
| 2. Ing. Tec. Peritos y Ayu. Tit | 885,30 | 3.642,00 |
| 3. Jefes/as Adm. y de Taller | 770,10 | 3.642,00 |
| 4. Ayudantes no titulados/as | 764,40 | 3.642,00 |
| 5. Oficiales administrativos/as | 764,40 | 3.642,00 |
| 6. Subalternos/as | 764,40 | 3.642,00 |
| 7. Auxiliares administrativos/as | 764,40 | 3.642,00 |
| | Euros/día | Euros/día |
| 8. Oficiales de 1ª y 2ª | 25,48 | 121,40 |
| 9. Oficial de 3ª y especialistas | 25,48 | 121,40 |
| 10. Peones | 25,48 | 121,40 |
| 11. Trab. menores de 18 años | 25,48 | 121,40 |

## Bases mínimas por horas (en contratos a tiempo parcial) »

| Grupos y categorías profesionales | Bases mínimas Euros/hora |
|---|---|
| 1. Ingenieros/as y licenciados/as | 6,43 |
| 2. Ing. Tec. Peritos y Ayu. Tit | 5,33 |
| 3. Jefes/as Adm. y de Taller | 4,64 |
| 4. Ayudantes no titulados/as | 4,60 |
| 5. Oficiales administrativos/as | 4,60 |
| 6. Subalternos/as | 4,60 |
| 7. Auxiliares administrativos/as | 4,60 |
| 8. Oficiales de 1ª y 2ª | 4,60 |
| 9. Oficial de 3ª y especialistas | 4,60 |
| 10. Peones | 4,60 |
| 11. Trab. menores de 18 años | 4,60 |

**La base mínima mensual de cotización será en estos casos el resultado de multiplicar el número de horas trabajadas por la base horaria indicada.**

## Tipos de cotización a la Seguridad Social »

**(% sobre base de cotización)**

| | |
|---|---|
| **Contingencias comunes:** | 4,70 |
| **Desempleo:** | |
| *Contratos indefinidos, contratos temporales formativos en prácticas, de relevo y de interinidad, y contratos con trabajadores discapacitados | 1,55 |
| *Contratos de duración determinada | 1,60 |
| **Formación profesional:** | 0,10 |
| **CONTRATOS PARA LA FORMACION** | |
| **Contingencias comunes:** | 6,18 e/m |
| **Formación Profesional** | 0,15 e/m |

EKOLOGIA
MEDIO AMBIENTE

# Gipuzkoako erraustegia, berriro ere martxan

GIPUZKOAKO ERRAUSTEGI BERRIAK SORTUKO DUGUNA BAINO ERREFUS KANTITATE GEHIAGO ERRETZEKO AHALMENA IZANGO DU. ZERTARAKO ERAIKI HAIN HANDIA, KONTATZEN EZ DEN INTERESEN BAT TARTEKO AGIAN?




› AINHARA PLAZAOLA

**Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu berri du Gipuzkoan hondakinak kudeatzeko azpiegituren txostena.** Bertan, besteak beste, 2020tik 2045era hondakinek izango duten bilakaera aztertu da. Eman diren datuen artean sortuko den errefusarena dago (birziklatu ezin den zatia). 2014tik 2030era errefus kantitateak 20.000 tona egingo du behera. 2030ean birziklapen tasa %60koa balitz 156.719 tona errefus sortuko lirateke, eta %70koa balitz 140.325 tona errefus izango lirateke sortutakoak. Aurreikuspenaren arabera, ordea, 2030etik 2045era gora egingo du errefus kantitateak, baina %60 birziklatuta 173.929 tona errefus sortuko lirateke, eta %70 birziklatuta 155.171 tona errefus.

**La nueva incineradora tendrá capacidad para 200.000 toneladas, por encima de la cantidad de fracción resto prevista. ¿Qué interés hay para que se haga una incineradora más grande de lo que se genera en Gipuzkoa?**

Azterketa honen arabera, %23,5 murriztuko da erraute plantara joango den errefus kantitatea eta horregatik eraikiko den erraustegi berriak %30 gutxiagoko ahalmena izango du. Ingurumen diputatuaren arabera, bi labe izango ditu erraustegi berriak, bakoitza 100.000 tona errefus erretzeko gaitasunarekin. Beraz, egin nahi den erraustegiak 200.000 tona erretzeko ahalmena izango du, aurreikusten errefus kantitatea baino handiagoa. 2008an aurreikusi zen erraustegia 260.000 tonarentzat zen.

**Aldundiak kontatu ez duena da** IBH ingeniaritza-aholkuaritzak, erraustegia egiteko ardura zuenak, prognosi bat egin zuela hondakinen sorreraren eboluzioarekin. Txosten horren arabera, 2020an 360.000 tona hondakin sortuko dira Gipuzkoan. Hauetatik %80a birziklatuko balitz, 288.000 tona hain zuzen, errefusa 80.000-120.000 tona inguru izango litzateke. TMB plantak eraikiz gero, gehienez 80.000 tona erretzeko ahalmena lukeen erraustegi bat nahikoa izango litzatekeela ondorioztatzen zuen txostenak.

IBHren txostenean agertzen den beste datu interesgarri bat: Gipuzkoako Hondakin Planak 500.000 tona hondakin sortzea aurreikusten zuen 2010erako, eta 406.000 tona sortu ziren. Aurreikuspenak egiten dituztenak ez dituzte ongi egiten, edo puztu egiten dira erraustegia eraikitzeko argudioak izateko. Txosten hau ez da publiko egin, noski, kasualitatez topatu da. Bi txostenen artean ezberdintasun handiak agertzen dira, baina Aldundiak erraustegia eraikitzeko eta ahalik eta handiena egiteko argudioak behar dituenez bere neurrira egindakoa aurkeztu du.

## COP21: nuevo fraude a la ciudadanía

Vistas las imágenes de la votación en la que se aprobó el Acuerdo de Paris en la cumbre internacional sobre el clima organizada por la ONU –COP21–, parece que al fin han conseguido el acuerdo vinculante y ambicioso que necesitamos. Nada más lejos de la realidad:

- **El Acuerdo no contempla reducir emisiones.** Lo que eran compromisos de reducción vinculantes han pasado a ser aportaciones voluntarias. Se revisarán cada cinco años y no se prevé ningún mecanismo de sanción.
- **No se plantea reducir las fuentes de energía fósil y extender las renovables.** Y sigue estando abierta la vía de las soluciones falsas.
- **En cuanto a la financiación no se exige ninguna cantidad de dinero.**
- **El acuerdo entrará en vigor en 2020,** bastante tarde, y sin garantías de que se vayan a tomar medidas efectivas.
- **El Acuerdo hace referencia a los derechos de las personas y de las comunidades, pero no propone ninguna medida para que se cumplan.** Exigimos que se coloque a las personas en el centro a la hora de adoptar cualquier decisión política.

Ante esto la única vía que nos queda es la movilización, y la creación y desarrollo de alternativas reales, como demostramos en Alternatiben Herria.

## HILEKO KRONIKA
## CRÓNICA DEL MES




# Eskerrik asko, Patxi!

› GORKA QUEVEDO

**"Patxi, Kronikaren biñeta pentsatzen hasi beharra dago, Jesse lehenbailehen abisatzeko".** "Bale, buelta bat emango diot eta gero hitz egingo dugu jakiteko nondik enfokatu dezakegun". Azken zortzi urteetan makina bat aldiz izan dugu hizketaldi hau, Patxi. Hain zuzen, sindikatuko komunikazio arduradun gisan Germanen lekukoa hartu zenuenetik. Ikusten duzunez **Landeia** berri bat bidali dugu inprentara, Hileko Kronika eta guzti. Oraingoan, zoritxarrez, ez dugu burua gehiegi astindu behar izan ilustrazioa nondik jo zezaketen jakiteko. Izan daitezela lerro hauek 2007. urtetik zurekin elkarlanean aldizkari hau egin dugun guztion omenaldia. Egiari zor, zaila egiten zaigu gertatutakoa ahaztu eta gaurkotasunari begirada bat ematea. Baina saiatuko gera, ahal dugun moduan azken asteetan gertatu denari errepaso azkar bat ematen.

Izan ere, Patxi, gauza asko gertatu dira azken **Landeia** itxi genuenetik. Esaterako, Nazio Batuen Erakundeak Parisen egin zuen COP-21 Klimaren Goi-Bilera amaitzear zela akordioa lortu zuten herrialde gehienek. Zoritxarrez, iragarpen ezkorrenak bete dira. Hitz ederrak bai, baina konpromisoak, gutxi. Zenbait sinatzailek planetaren etorkizuna bermatzen duen akordioa dela adierazi dute, baina errealitatea oso bestelako da.

**El atropello cometido contra la ILP de ELA tiene que ser un nuevo acicate para impulsar la campaña contra la precariedad y en favor de condiciones laborales dignas**

Akordioak ez du emisio murrizketarik jasotzen; ez da energia fosila murriztu eta energia berriztagarriak orokortzeko aipamenik egiten; soluzio faltsuetarako bidea irekitzen jarraitzen du; karbono merkatuek ere aurrera jarraituko dute...

**Bai, Patxi, gauza asko gertatu dira azken Landeiatik.** Esaterako, negoziazio prozesu luze eta gorabeheratsu baten ostean, Kataluniak badu bere 130 president-a: Carles Puigdemont. Azkenean, urtarrilaren 9ko arratsaldean, Junts Pel Si eta CUP koalizioetako ordezkariek akordioa lortu zutela iragarri zuten. Hurrengo egunean, ordura arte Gironako alkate zen Puigdemontek Artur Masen lekukoa hartu zuen. 2015eko azaroaren 9an Junts Pel Si eta CUPek lortutako akordioari jarraikiz, Kataluniak hasi du beraz bere "deskonexio prozesua".

Ez dakigu zer gertatuko den hurrengo urte eta erdian. Adostutakoa beteko balitz epe horren amaieran Kataluniak

## Los máximos dirigentes de la EU-28 ya han avisado al futuro gobierno de España, sea cual sea: hay que hacer más recortes y más reformas

bere independentzia aldarrikatuko du. Baina, edozer gertatzen delarik ere, urtarrilaren 9ko akordioaren aurreko egunak oso adierazgarriak izan ziren Euskal Herritik begiratuta. A zer nolako saltsa egon den, Patxi! Hainbat astez negoziazioak "gure" egin ditugu, eta ez dago gai horretaz bere iritzia eman ez duen lagunik. Tira, gutxienez bakoitza non dagoen, zein lehentasun dituen eta etorkizunean gurean gisa horretako prozesu bat ematen bada –hala bedi!– non kokatuko zen jakiteko baliagarria izan da oso.

Gaiaren inguruan mintzatu izan den lagunetako bat Iñigo Urkullu lehendakaria izan da. Eta, kasu honetan, bere kezka adierazteko. Izan ere, badakizu, politika politikoen kontu hutsa da, eta gainontzekook isilik egon behar dugu. Oraingoan, Patxi, **Maialen Lujanbio**ri hitzak lapurtuko dizkiogu, berak primeran laburbildu baitzuen afera Euskadi Irratiko Faktoria saioan egiten duen asteroko kolaborazioan.

### *Sinonimoen ekuazio bat*

*Sinonimoen ekuazio bat*
*Lehendakariaren esaldi hau deszifratzeko: "Me alarma que movimientos sociales sin responsabilidades condicionen Cataluña".*

*Euskarara ekarrita, "me alarma", larritzen nau, "que movimientos sociales", herri mugimendu, "sin responsabilidades", ardurarik gabeek, edo... arduragabeek esan nahi ote zuen? "condicionen Cataluña", baldintza dezaten Euskadi. Larritzen nau herri mugimendu ardurarik gabeek baldintza dezaten Catalunya, edo Euskadi, edo egonkortasuna.*

*Sinonimoen ekuazio batean, demagun, larritzen nau kultur mugimendu arduragabeek baldintza dezaten kultur politika, edo larritzen nau langile mugimendu bezatu gabeek baldintza dezaten industria.*

*Bestela esanda, beldurtzen nau bidezidor urratu gabeek baldintza dezaten zuzenbidea, edota urduritzen nau kotoizko kamisetek baldintza dezaten uniformea, hobe esan, uniformetasuna.*

*Ikaratzen nau diru goserik gabeek baldintza dezaten banku sistema.*

*Nerbiosten nau bestelakoaren konspiratzaileek baldintza dezaten legea, araua, moldea; eta jende ekinak baldintza dezan etekina.*

*Esan nahi baita, kezkatzen nau eme desafiatzaile lotsarik gabeek, baldintza dezaten gizalegea, hots, gizon legea.*

*Asaldatzen nau pasioaren aktibistek baldintza dezaten ordena, edo preokupatzen nau aremeen harreman kontratu gabeek baldintza dezaten familia.*

*Gogaitzen nau jende beldurrik gabeek baldintza dezaten segurtasuna eta kontrola.*

*Beraz, izutzen nau eszeptikoen asanbladek baldintza dezaten gure parrokia; alegia, larritzen nau guztien eskuhartzeak baldintza dezan gure eskumena, eta hiritarren buruetan dagoenak baldintza dezan gure eskuetan dagoena.*

*Ondorioz, eta ekuazioaren emaitzan... zerbait gaizki egin izango dut, hau ezin da izan emaitza zuzena: larritzen nau hiritarren iritzi libreek baldintza dezaten demokrazia.*

**Bai, Patxi, gauza asko gertatu dira azken Landeiatik.** Esaterako, abenduaren 20ko hauteskundeen ostean saltsa handia dago Espainiako gobernu berria osatzeko. Aldizkaria aurki inprentara bidali beharra dago, eta zaila da aurreratzea zer gertatuko den. Baina, itxura guztien arabera luze joko du gaiak. Pentsa, ziurrenik hurrengo Landeian ere ezin izango dizugu esan zer gertatzen den. Xake partida batean bezala hasi dira mugimenduak, eta bakoitza bere lekua hartzen saiatzen ari da.

Dena den, badira azken aste hauetan arreta jartzea merezi duten hainbat titular. Argazkian norberak bere tokia hartzeko lehia horretan, Europako goi-agintari gorenak hasi dira osatuko den gobernu berria estu hartzen –gehiengorik lortu ez eta hauteskundeak errepikatzen ez badira, noski–. Hor daude Europako Komisioko presidente Jean-Claude Junckerren, EB-28ko ekonomia eta finantza ministroek osatutako Eurotaldeko presidente Jeroen Dijsselbloem-en edo ekonomia gaietarako Europako Komisario Pierre Moscovici-ren adierazpenak. Guztiek argi utzi dute presidente berria edozein delarik ere Espainiak murrizketa eta erreforma gehiago egin beharko dituela, iragan legegintzaldian egindako erreformak oso positiboak izan arren oraindik ere erreforma gehiago egin behar baitira.

**Bai, Patxi, gauza asko gertatu dira azken Landeiatik.**
Esaterako, ELAn gogor jarraitzen dugu lanean prekarietatearen kontrako kanpainan. Hedabide nagusienetan gero eta gehiago dira irakurri daitezkeen mezu triunfalistak. Badirudi, hala esaten digute behintzat, 2016an ekonomiak hazkunde handia izango duela, dagoeneko krisia amaitu dela, langabeziak behera egingo duela nabarmen... Baina ez digute esaten hazkunde hori gero eta bidegabeagoa den aberastasunaren banaketa baten oinarritzen dela, hazkunde eredua planeta bideragarri ez izatea eragin duen bera dela, sortzen den enplegu apurrak kasurik gehienetan ez duela bizitza duin bat aurrera eramateko balio...

Gure jendeak, Patxi, oso gaizki pasatzen jarraitzen du. Makina bat adibide ditugu inposatu nahi diguten erretratu baikor horri erantzuteko: TRW, ACS, Aernnova, Etxekide, Gastronomia Basca, Laparra, ICF Faurecia, Condesa, Kondia... Gaur eta orain borrokan ari diren hainbat enpresetako adibideak besterik ez dira. Kasu guztietan euren enpleguak kolokan dituzten langileak.

ELAn borrokan jarraituko dugu, Patxi. Orain, gainera, badugu prekarietatearen kontrako kanpainan are eta gogo handiz lan egiteko beste aitzakia bat: administrazio publikoarentzat azpikontrata ezberdinetan lan egiten duten milaka langileen lan-baldintzak hobetzeko 2013an aurkeztu genuen Legegintzako Herri Ekimena ez da aurrera atera. Ez behintzat aurkeztu genuen terminoetan. EAJk eta PSE-EEk lortu duten akordioaren ostean edukiz hustu dute ekimena. Ez dakigu –hala bai?– atzean zein interes dauden, baina argi dago ez dutela prekarietatearekin amaitu nahi. Ez dakigu –hala bai?– atzean zein interes dauden, baina sumatzen ditugu.

## Catalunya ya tiene nuevo president: Carles Puigdemont. El proceso de desconexión ya ha comenzado. Falta por ver como termina

**Bai, Patxi, gauza asko gertatu dira azken Landeiatik.** Europak egunez egun gero eta oztopo gehiago jartzen dizkie arrazoi ezberdinengatik euren herrialdea utzi eta bertara heldu nahi duten lagunei. Urtea hasi besterik ez da egin, baina dagoeneko hamaika dira gosetik, gerratik edo errepresio mota ezberdinetatik ihesean hil diren lagunak. Eta, egunez egun etorkinen kontrako neurrien inguruko albiste berriak heltzen dira: mugak ixten dituzten herrialdeak –Danimarka, Suedia–; kanporatze iragarpenak –Alemania, Suedia–; etorkinei izan ditzaketen ondasunak konfiskatzeko neurrien onarpena –Danimarka eta Alemaniako bi estatu, Baviera eta Baden-Württemberg–...

**Bai, Patxi, gauza asko gertatu dira azken Landeiatik.** Eta ziur egon hurrengo Landeia amaitu baino lehen beste gauza asko pasako direla. Lasai egon, kontatuko dizkizugu. Bai, Patxi, gauza asko gertatu dira azken Landeiatik. Esaterako, zure falta sumatzen dugula. Eskerrik asko guztiagatik, Patxi.




**El 5 de febrero, en torno a 1.800 delegados/as de ELA se reunieron en el Frontón Ogeta, de Gasteiz, y se dirigieron en manifestación, posteriormente, hasta las inmediaciones del parlamento vasco para exigir la aprobación de la ILP.**

DE CONSUMARSE EL NO DEL PARLAMENTO VASCO A LA ILP DE ELA, LA PELEA CONTINUARÁ AYUNTAMIENTO A AYUNTAMIENTO, DIPUTACIÓN A DIPUTACIÓN, LICITACIÓN A LICITACIÓN

# Fraude a la sociedad vasca

Los peores augurios en torno a la aprobación de la Iniciativa Legislativa Popular presentada por ELA en el Parlamento Vasco se van confirmado: tras más de dos años desde el inicio de ésta iniciativa todo apunta a que no saldrá adelante: sólo cuenta con el apoyo de EH Bildu y –todavía peor– PNV y PSE-EE han llegado a un acuerdo para descafeinarla.

ELA presentó el 3 de abril de 2014 en el Parlamento de Gasteiz 109.396 firmas en favor de una ILP en la que, entre otros aspectos, se recoja el derecho de subrogación de las y los trabajadores subcontratados ante cualquier tipo de cambio de empresa y la garantía de unas condiciones laborales dignas. En opinión de ELA, se trata de una oportunidad para que los partidos demuestren su compromiso con los principales problemas de los trabajadores y trabajadoras en los servicios que ellos mismos decidieron, en su día, poner en manos privadas.

Sin embargo, durante su tramitación, PNV, PSE-EE, PP y UPyD han aprobado un dictamen que no respeta el espíritu ni el contenido del texto inicial, de tal manera que si el pleno del Parlamento lo aprueba en las próximas semanas, la ILP de ELA habrá quedado tan rebajada que no solucionará ninguno de los problemas que pretendía arreglar.

## Gasteizko gobernuaren gaitzespena baino ez dugu jasotzen krisiak gehien jotakoen defentsan aritzen garen antolakundeetan

**110.000 firmas –la ILP con mayor apoyo de la historia de la CAPV– ¿a la basura?** Poco o nada parecen importarles las casi 110.000 firmas de otros tantos ciudadanos y ciudadanas vascos apoyando esta iniciativa; ni, por supuesto, las condiciones de miseria laboral a las que abocan a miles y miles de trabajadores/as de las subcontratas públicas.

En el acto de apoyo a esta ILP que tuvo lugar en Gasteiz el pasado 5 de febrero, el secretario general de ELA acusó al gobierno de Urkullu de tratar de impedir la tramitación de la ILP




desde su inicio, de no querer poner límites al deterioro laboral, de apoyar a las empresas piratas en las subcontratas y de hacer dumping social al primar las ofertas más baratas en la contratación pública.

En opinión de ELA, las posiciones contrarias a esta ILP coinciden con las de Confebask –que ha llegado a calificar la inciativa de ELA de "disparate"– y son consecuentes con la política de ajustes del Gobierno Vasco, que da prioridad a los recortes presupuestarios sobre cualquier otra cuestión; sobre todo, si es social.

ELA recuerda, como contrapunto, que una ILP exactamente igual fue presentada en el Parlamento de Navarra y que todos los grupos votaron a favor de la misma.

**¿Oportunidad perdida?** Esta ILP es una oportunidad inmejorable para pasar de las palabras a los hechos. En este sentido, ELA ha hecho un último llamamiento a los diferentes grupos parlamentarios a que aprueben la ILP y demuestren que están a favor de la dignidad laboral. Ese fue el objetivo de la jornada de movilización del 5 de febrero.

El responsable de negociación colectiva, Joseba Villarreal, adelantó, sin embargo, que pase lo que pase en el pleno en el que se debata la ILP, ELA seguirá luchando para poner coto a la precariedad en las subcontratas públicas. "Es posible que hayamos perdido esta batalla, pero no la guerra. Llevaremos la lucha por la dignificación laboral de los trabajadores/as de las subcontratas públicas a los pueblos, a los ayuntamientos, a las Diputaciones. Presentaremos mociones para incluir los objetivos de la ILP en todas las licitaciones", adelanto.

"No nos vamos a quedar en la denuncia pública de este fraude social que pretenden consumar, que hay que hacerla", continuó. "Por encima de todo –aseguró– nuestro mensaje sigue siendo de organización, movilización y lucha. Si nos organizamos podemos cambiar las políticas y el statu-quo actual" insistió Villarreal, que concluyó afirmando que "con estas políticas, que no esperen paz social".

## Administrazioek lanak eta zerbitzuak beheraka adjudikatzen dituzte, kasu batzuetan %50eraino



### ZER DA LEGEGINTZAKO HERRI EKIMEN BAT

**Herritarrentzako parte hartzeko modu bakarra da; honen bidez parlamentura eraman daitezke edozein arrazoi medio indar politikoek aintzat hartu ez dituzten gaiak, edota ekimena proposatzen duenaren kezkak.**

### ZERGATIK PROPOSATU DU ELAK EKIMEN HAU?

**Lan-baldintzak gero eta okerragoak dira, hainbat murrizketa eta erreformen ondorioz; gauza bera gertatzen zaie herri-administrazioek kontratatutako enpresentzat lan egiten duten behargineí. Baldintza-agirietan gutxieneko bermerik ezartzen ez denez, sektore askotan esplotazioa gertatzen da, eta zerbitzuak egiten dituzten enpresen aldaketak enplegua galtzea dakar; lanaldia murritza denean, are ordu gutxiago izatea; lehiaketan ezarritako prezioak beheratzean lanhitzarmena ez aplikatzea, edota soldata-eskala bikoitzak, baldintza ezberdinak aplikatzen zaizkielako langile berriei.**

**Administrazioek arlo publikoko jarduerak azpikontratatzen dituzte, guztion dirua baliatuz. Beraz, esparru honetan lan egiten duten pertsona guztien baldintzak beren ardurapean daude, eta gutxieneko eskubide batzuk bermatu behar dituzte. Horrela zerbitzu publikoen kalitatea herritar guztientzako ziurtatuko litzateke. Hartara, ELAk proposatu du lege batean jasotzea administrazioek minimo horiek nola bermatuko dituzten.**

### ZER NOLAKO KLAUSULAK ESKATZEN DITUGU?

*** Lehenik, enpleguaren galera ekiditea, bermatuaz azpikontratetako langileek beren postuan jarraitzeko eskubidea izango dutela (subrogazioa), edozein enpresa aldaketa gertatuz gero.**

*** Bigarrenik, gutxieneko lan- eta soldata-baldintzak bermatzea. Zein baldintza? Indarrean dagoen hitzarmen sektorialekoak, baldin badago, edota indarrean izan den azken hitzarmenekoak, berritu ez bada.**

*** Hirugarrenik, berriz, zigorrak ezartzea eskakizun horiek betetzen ez dituzten enpresei, edota lanlegedian jasotako eskubideak aintzat hartzen ez dituztenei.**

# 55.000 baino pertsona gehiagoren etorkizuna kolokan




Etxez etxeko laguntzako langileak, garbitzaileak, anbulantzietakoak, TAOzainak, gizartegintzakoak, kirol-monitoreak, bisita gidatuetakoak, turismo-informazioko zerbitzuetakoak, erakusketa-zentroetakoak, hezkuntza-tailerretakoak, zerbitzu teknikoetakoak... Milaka eta milaka pertsonak lan egiten dute azpikontrata publikoetan —55.000tik gora, sindikatuaren kalkuluen arabera—, hainbesteraino non batzuek administrazio paralelo benetako bat direla esan duten.

Legegintzako Herri Ekimen (LHE) hau, beraz, ez da huskeria bat. Kolokan eta prekarietatean dauden milaka langileren etorkizunari lan-egonkortasuna eta duintasuna eman nahi zaizkio. ELAk ondo daki zertaz ari den. Jarraian adibide *txiki* batzuk adieraziko ditugu salatzen duguna argiago gera dadin.

**Obra publikoa:** administrazioek %50eraino jaisten dute esleipenen prezioa. Hona hemen ondorioak:

- Hitzarmenak ez dira betetzen.
- Lan-ordua 5 eurotan ordaintzen da.
- Lanaldiak egunean 10 ordura artekoak izaten dira.
- Sasi-kooperatibak ugaltzen dira, gutxiago ordaintzeko, eta Lan Ikuskaritzaren eskuhartzerik ez izateko.

**Ezbeharren tasak goraka doaz:** Lanistripu asko gertatzeko arrazoia enpresek prebentzio-neurriak ez betetzea da. Administrazioek ezarritako murrizketak enpresek prebentziotik (zaintza eta kontrola) aurrezten dute.

**Enpresak ixtea:** Antzibar, Gipuzkoako eraikuntza-enpresa, itxiera-Enplegu Erregulazio Espediente bat aurkeztu du, non hitzez hitz honela dioen: "...esleipenen diru-baldintza bidegabeak direla-eta, ez dugu lortu obretako bat ere errentagarria izatea". Eta adibide batzuk ere jarri dituzte, besteak beste, Aguraingo Lope de Larrea Institutuko obra, non 286.102,06 euroko galera izan den.

**Gasteizko udala:**

***Ludotekak eta bilera-gelak:** 80 langilez osaturiko azpikontrata. Estatuko hitzarmenaren eraginpean daude. Lanaldi partzialeko kontratazioa: langile bik edo hiruk bakarrik dute lanaldi osoko kontratua. Baldintza-orrietan proposatzen zaie langileei murrizketa gehiago onartzea, inor ez kaleratzeko.

***Kirol-monitoreak eta sorosleak:** hitzarmenean subrogazioa lanaldi osoko kontratuetarako bakarrik jasotzen da, baina kontratu gehienak lanaldi partzialekoak dira.

**Zerbitzu teknikoetako langileei (Serykat, Deusto Sistemas, Ibermática, Indra, Axpe Consulting, Idom...).** Bulegoetako Hitzarmena edo Ingeniaritza eta Aholkularitza Hitzarmena aplikatzen diete, subrogaziorik gabe.

**Osakidetza:** 93 azpikontratazio eremu ezberdin daude. Guztira 82 milioi euro baino gehiago bideratzen dira azpikontratera. 93 hauetatik 49 enpresetan ez dago subrogazio bermaturik, hau langile batzuek badaukate eta beste batzuek ez. Diskriminazioa ahalbidetzen du administrazioak.

## BAI lan duintasunari!

**ELArentzat garrantzi handikoa da Eusko Legebiltzarrak LHEri buruz hartzen duen erabakia.**

**BAIETZ bozkatzeak babesa emango lieke milaka eta milaka langileri soldatak jaistetik eta lanaren gizatasuna galtzetik.**

**EZETZ bozkatuko dutenak patronalik atzerakoienaren aldera lerratuko dira. Gure jendeak edozein enplegu-mota, eskaintzen diren baldintzak lazkarriak izanda ere, onartu behar duela dioen patronalaren aldera.**

**Eta guk denok ezagutzen ditugu artez-artez zein miserableak diren baldintzak batzuetan.**

## EZ DUTE GEHIAGO NAHI SUBROGAZIOA HITZARMENETAN ARAUTZEA



**ELArentzat ez dira oharkabean gertatzen alderdi politiko askoren eta enpresa handien arteko lotura estuak.** Enpresa horiek, etekinak ugaltzearren, erabaki dute enplegua babesten duen arau oro kendu behar dela. Legegintzako Herri Ekimenari EZETZ esatean EAJ, PSE-EE, PP eta UPD estrategia horretara lerratu dira.

Patronala aurrera-eraginaren amaieraz baliatzen da negoziazio kolektiboan xantaia egiteko, eta era berean traba egiten dieten gai guztiak kendu nahi dituzte. Subrogazioa gai *gogaikarri* horietako bat da.

Eusko Jaurlaritza eta Confebask bat datoz lan-subrogazioa esparru guztietatik kentzeko helburuarekin. Horregatik LHE eragozpen bat da.

LAN OSASUNA
SALUD LABORAL

# El amianto se pasea por las aulas de Gasteiz

› LEIRE HEREDIA



**Kepa trabaja en el servicio de mantenimiento del Ayuntamiento de Gasteiz como oficial especialista y, además, es delegado de prevención de ELA** desde hace un año, aproximadamente. A pesar del corto tiempo que lleva en prevención le ha tocado lidiar con un tema realmente polémico, como es el del amianto.

Como responsable del mantenimiento de los edificios municipales, a finales del año 2015 se le solicitó que cortara parte de una pizarra de clase de un colegio para la colocación de pizarras digitales. Al efectuar dicha tarea se sorprendió al ver fibras en su estructura, por lo que utilizó una mascarilla como protección.

Cuando le solicitaron una nueva operación de corte de los encerados, comunicó a la empresa su sospecha sobre la existencia de amianto, y se puso en marcha un trabajo conjunto con el Servicio de Prevención del Ayuntamiento, el cual realizó varias tomas de muestras en diferentes pizarras.

**Los informes de dichas catas dieron como resultado la confirmación de amianto** en algunas pizarras del centro, así como en unos plafones utilizados como elementos de separación entre aulas, en su variante de crisotilo no friable, lo que significa que si ese material no se manipula, (corte, lijado, taladro..) no existe peligro de exposición a las fibras.

Este hecho supuso una alarma tanto en los centros escolares como en la calle, ya que se publicó en diferentes medios la existencia de amianto en aulas escolares. Lo novedoso de este episodio es dónde se han encontrado estas fibras de amianto. En la bibliografía sobre amianto se citan sectores de actividad de uso de estas fibras como la construcción, la industria del automóvil, la industria naval, la industria siderometalúrgica... entre otros, pero hasta la fecha no se había detectado en equipos o estructuras de un colegio.

Tras conocer los resultados se llevaron a cabo diferentes reuniones entre las y los delegados de prevención, el servicio de prevención del Ayuntamiento de Gasteiz y Osalan, en las que se consensuaron los siguientes objetivos:

- La realización de un mapa para identificar las pizarras de los colegios públicos susceptibles de contener amianto.
- La prohibición absoluta de manipulación de dichas pizarras.




## Gasteizko lau eskoletako sei arbeletan amiantoa aurkitu dute. Dagoeneko erretiratu dituzte ikastetxe hauetako geletatik

- Elaboración de un listado de trabajadores y trabajadoras que pudieran haber estado expuestos a estas fibras, junto con un protocolo específico de vigilancia de la salud.
- La retirada de las pizarras y estructuras identificadas por una empresa autorizada para la retirada de amianto.

De momento, los dos primeros puntos ya se han abordado, y están a la espera de las pruebas médicas específicas al personal identificado como susceptible de exposición a fibras de amianto. Por otra parte, algunos centros ya han retirado las pizarras, pero aún queda alguna más por retirar.

**El mayor problema es que puede haber este tipo de pizarras en otros edificios que no se han investigado.** Por ello, desde ELA solicitamos al Departamento de Educación del Gobierno Vasco que ponga en marcha una investigación de manera inmediata y la extienda a toda la CAPV para comprobar la existencia de más pizarras que puedan contener amianto, retirándolas adecuadamente y en el menor tiempo posible.

# “ELA es la única garantía para lograr un buen convenio”

**MARICRUZ ELKORO Y MARIGE FERNÁNDEZ** VALORAN MUY POSITIVAMENTE EL ACUERDO MARCO PARA EL COMERCIO DE LA CAPV




› GORKA QUEVEDO

**ELA, con mayoría absoluta en el sector, firmó el 25 de noviembre de 2015 un Acuerdo Marco para el comercio de la CAPV.** Una firma que en opinión de Maricruz Elkoro, responsable de ELA-Zerbitzuak, y Marige Fernández, responsable del comercio textil de Bizkaia, demuestra que nuestro sindicato es la mejor garantía que tienen las y los trabajadores para tener un buen convenio.

**-¿Qué valoración hacéis del Acuerdo Marco logrado para el comercio de la CAPV?**

-El acuerdo tiene como base el preacuerdo suscrito en julio del 2015 entre ELA y la patronal del comercio Euskomer. Ahora, lo que se ha hecho es elevarlo a acuerdo. En primer lugar, hay que subrayar que nuestro sindicato tiene mayoría absoluta en el comercio, con una representación que supera el 51%. El resto de sindicatos con representación en el sector, posteriormente, han decidido sumarse al mismo.

La valoración es muy positiva. Nuestro objetivo era crear un Acuerdo Marco en el Comercio de la CAPV para, de este modo, poder estructurar desde el ámbito autonómico la negociación colectiva, otorgando prioridad a los convenios provinciales del comercio de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia frente a otros acuerdos o convenios que emanen del estado. Hemos logrado blindar los convenios de comercio de la CAPV frente a acuerdos regresivos del estado. En definitiva, proteger las condiciones de las trabajadoras del comercio y sus convenios de referencia.

**-Se trata del primer Acuerdo Marco de este estilo. ¿En qué contexto llega? ¿Por qué hemos luchado por esta fórmula para defender los convenios del comercio?**

-Estamos en un contexto de una fuerte centralización de la negociación colectiva. El panorama y las reglas de juego han cambiado sustancialmente desde que entraran en vigor 'las medidas urgentes para la reforma de la negociación colectiva' impulsadas por el Gobierno de Zapatero (PSOE) –Real Decreto 7/2011–. Esta reforma atribuye competencias de estructura, además de a los Acuerdos Interprofesionales, a los Acuerdos Marco o Convenios sectoriales estatales y a los Acuerdos Marco y convenios sectoriales de ámbito de Comunidad Autónoma. A través de este sistema de estructura de la negociación y de posibilidad de reservarse materias en exclusiva en los ámbitos señalados, los convenios provinciales quedan en una situación muy precaria.

## ELA da gaur egun akordio on bat lortzeko dagoen berme bakarra

## Merkataritzako akordio markoak sektoreko langileak babesten ditu Estatu mailako hitzarmen aurrean

Dicho esto, hay que resaltar que la reforma de Zapatero posibilita la centralización de la negociación colectiva, pero no obliga. Para que dicha centralización se produzca tienen que ponerse de acuerdo dos partes: asociaciones patronales estatales y sindicatos estatales, UGT y CCOO en este último caso. Las organizaciones estatales, tanto patronal como esos sindicatos, se han puesto manos a la obra en su afán centralizador. Han puesto toda la maquinaria en marcha para crear Acuerdos Marco Estatales y Convenios Sectoriales Estatales, incluso allí donde no existían. A través de ellos se reservan materias en exclusiva para su negociación en esos ámbitos, dejando el ámbito provincial sin materias que negociar.

**-¿Qué sectores se verían afectados por esos acuerdos estatales?**

-En nuestra federación, ELA-Zerbitzuak, son varios los ejemplos que tenemos: Convenio Estatal de Limpieza, Acuerdo Laboral Estatal de Hostelería, Convenio de Empresas de Restauración, Oficinas y Despachos, Convenio de Droguerías y Perfumerías... Hablamos de miles y miles de trabajadoras y trabajadores, en su mayoría mujeres, que verían afectadas gravemente sus condiciones laborales. Las consecuencias de esta centralización para las trabajadoras de Hego Euskal Herria serían salarios en torno a un 30% más bajos, mayores jornadas, peores coberturas sociales...

**-Denunciáis la actitud centralizadora de UGT y CCOO. ¿No es contradictorio con la supuesta posición de defensa de los convenios provinciales que mantienen esas organizaciones en la CAPV?**

-Sí, públicamente dicen defenderlos, pero en la práctica negocian su desaparición. Mantienen un doble discurso que ya no resulta creíble. Por eso, cada vez

tienen menos respaldo en las elecciones sindicales, mientras que ELA consolida su mayoría absoluta. Dicen de boquilla que defienden los convenios provinciales, pero por la vía de los hechos lo que están haciendo es contribuir a su desaparición, como se puede comprobar en el sector del comercio.

Tras el Acuerdo Marco para la CAPV que alcanzamos, CCOO y UGT –junto con la patronal española– se han puesto manos a la obra para tratar de evitar los efectos del acuerdo. Traman modificar el antiguo Acuerdo Marco Estatal de Comercio para evitar iniciativas como la de la CAPV. Jacobinismo en estado puro.

En la mayoría de acuerdos estatales logrados por CCOO y UGT con la patronal se establecen cláusulas que impiden la negociación a nivel de Comunidad Autónoma, si no es con la aprobación de la Comisión Paritaria estatal. Es decir, impiden que sindicatos que tenemos mayoría en muchos ámbitos de negociación de la CAPV y provinciales podamos impulsar nuevos ámbitos de negociación a esos niveles, cerrando esta posibilidad desde el Estado. Toda una lección de democracia y de respeto a la realidad socio-laboral de Hego Euskal Herria. Pretenden a través de la imposición arrogarse mayorías que los trabajadores y trabajadoras no les dan en las urnas.

## Ikusi ditugu zeintzuk diren ondorioak gehiengo osoa ez dugun tokietan: akordio txarrak

**-En Navarra la situación es bien distinta.**

-Desgraciadamente, ELA no tiene mayoría absoluta en el comercio de Navarra, al contrario que en la CAPV. Propusimos a CCOO y UGT blindar la negociación de Navarra, pero se negaron a ello. Esos sindicatos que en Hego Euskal Herria se erigen en los mayores defensores de los convenios provinciales luego ni los defienden ni los pelean. Convenios que, en el caso de Navarra, donde son mayoría, han dejado morir. Las consecuencias de esta negativa, si nada lo remedia, serán retrocesos en condiciones de trabajo y doble escala salarial peor para las nuevas contrataciones.

**-¿Cómo se explica que organizaciones que dicen defender a las trabajadoras tomen decisiones que les perjudican?**

-Realmente es inexplicable. CCOO y UGT, recientemente, han firmado un convenio en el Estado para las empresas que gestionan los comedores escolares. La resultante ha sido: bajos salarios para las nuevas incorporaciones,

## Merkataritzan argi izan dugu sektore mailako borroka eta enpresa mailako borrokak bateragarriak zirela

incrementos de jornada, coberturas sociales insuficientes y ninguna cláusula de blindaje frente a la reforma. Eso sí, regula muchas prebendas sindicales para los firmantes del convenio.

Otro ejemplo. ¿Qué hacen estas organizaciones a nivel del Estado en relación a la liberalización de horarios comerciales? ¿Qué papel han jugado? Aceptación sin ningún tipo de oposición. Ni una sola movilización frente a ello. La resultante, apertura del comercio 365 días del año. Por contra. ¿Qué sucede en la CAPV? Las trabajadoras descansan los domingos y festivos. ¿Cuál es la diferencia? Dos modelos sindicales distintos. ELA está y estará al lado de las trabajadoras del comercio que decidan pelear por mejores condiciones.

**-¿Y ahora qué? ¿Qué estrategia tenemos de cara al futuro?**

-Con este acuerdo quedamos protegidos de los ataques que pudieran venir del Estado, pero no así de los ataques a nivel de convenio de empresa, pues la prioridad de este último es intocable. De todos modos, también para eso tenemos plan y diseñaremos la estrategia de negociación en cada empresa y centro de trabajo.

Es imprescindible insistir en que el único ámbito donde podemos garantizar la aplicación del convenio es la empresa. Vamos a impulsar una doble estrategia: hacer convenios de centro que tengan prioridad aplicativa y llevar los contenidos del sectorial a los convenios de centros de trabajo. Esta es la única garantía de que este convenio se aplique a futuro frente a convenios de empresa estatales.

En Lidl, donde ELA tiene mayoría absoluta, ésta ha sido la estrategia y lo hemos conseguido. Hemos blindado el convenio para que un futuro convenio de empresa estatal con peores contenidos no se aplique nunca en los centros de Lidl de la CAPV o, por lo menos, mientras ELA sea mayoría absoluta. Por otros, no respondemos.

## Merkataritzan lortu ditugun akordio bikainak langileen mobilizazioari esker izan dira

**-Y, en esta estrategia, ¿qué retos tenemos para seguir mejorando las condiciones laborales de las trabajadoras del comercio?**

-En el sector del comercio hemos tenido muy claro, desde un principio, que la lucha sectorial y la lucha en las empresas no eran excluyentes. Hablamos de un sector con mucha presencia de grandes multinacionales de implantación estatal, lo que dificulta la negociación de un convenio de empresa. Eso ha hecho que nunca hayamos abandonado la negociación sectorial. Sin embargo, nos guste o no, el convenio de empresa tiene prioridad y, si queremos garantizar la aplicación de los convenios sectoriales, hay que llevarlos al ámbito de empresa. Este es sin duda nuestro reto en el futuro inmediato.

En el sector del comercio nuestra apuesta por los convenios sectoriales ha sido clara y firme. Pero, además, paralelamente hemos abierto la negociación de empresa, algo impensable en otros tiempos, consiguiendo buenos acuerdos en empresas del sector como, por ejemplo, en Punto Roma. Y esto sólo es posible con un sindicato fuerte y autónomo como el nuestro. Un sindicato compuesto por miles de militantes cuyo único fin es trabajar por la mejora de las condiciones de trabajo.



# Suhiltzaileak, erreta

EAEKO LEHEN SUHILTZAILE LEGE PROIEKTUAK ATEAK IREKITZEN DIZKIO ZERBITZU PUBLIKO HONEN PRIBATIZAZIOARI




› GORKA QUEVEDO

**Sutan daude Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako suhiltzaileak.** Eta euren haserreak arrazoi argia du: 2015. urteko uztailean Eusko Jaurlaritzak aldebakarrez onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko lehen Suhiltzaileen Lege Proiektua. Udaratik hona suhiltzaileek hamaika mobilizazio egin dituzte Jaurlaritzari lege hau erretiratu dezan exijitzeko. Uneotan, prebentziorako, suteak itzaltzeko eta salbamendurako lege proiektua tramite parlamentarioan da jada, Eusko Legebiltzarrean aurrera atera zain.

ELAk sektorean duen arduradun Ekaitz Oiangurenek salatzen duenez, Eusko Jaurlaritzak aldebakarrez landu du lege hau, suhiltzaileekin eta sindikatuekin harremanetan jarri gabe. "Duela urtebete pasatxo hedabideen bidez izan genuen egitasmo honen berri. Makina bat eskaera egin ditugun arren, denbora honetan bilera bakarra egin dugu. Eta ez pentsa bilera Eusko Jaurlaritzaren borondateagatik izan zenik, Funtzio Publikoaren legeak behartzen dituelako egin genuen bilera hura. Gainera, ez zen negoziazio bilera bat izan; euren egitasmoen berri eman ziguten, baina negoziaziorako ate guztiak itxita. Gainontzean ez dugu inolako harremanik izan".

Arrazoi ugari ikusten ditu Oiangurenek lege honen kontra egiteko. "Zerbitzu hau eskubide bat da, eta eskubide bat den neurrian administrazio publikoak bermatu egin beharra dauka. Zerbitzuak publikoa izan behar du bere osotasunean, administrazio publikoan guztiz barneratua egon beharra dauka, langile publikoekin, 24 orduz zerbitzua emanaz eta lanbaldintza duinekin. Zoritxarrez, proiektu honek kontrakoa egiten du. Ez du zerbitzuaren publikotasuna bermatzen, pribatizazioari ateak zabaltzen dizkiolarik. Gainera, suhiltzaile zerbitzuari eskumenak kentzen dizkio. Eskumen nagusia sua itzaltzea balitz bezala jartzen du, baina suhiltzaileek sua itzaltzeaz gain beste hamaika gauza egiten dituzte: prebentzioa egiten dute, salbamendua egiten dute, istripuen kudeaketan funtzio ezberdinak dituzte…".

**Galera nabarmena zerbitzuaren kalitatean.** Kexu dira suhiltzaileak lege berriak zerbitzuaren kalitatean izan ditzakeen eraginekin. "Suhiltzaileek oposizio batzuk egin behar dituzte, besteak beste proba fisiko gogorrak gainditu behar dituztelarik. Baina, horretaz gain, suhiltzaileak egunero-egunero daude euren parkeetan prestatzen eta formatzen: maniobrak nola egin, istripuen aurrean nola jokatu, euren eginbeharretan garrantzitsuak izan daitezkeen kontuak ikasten –mekanika, elektrizitatea, fisika…– Legeak suhiltzaile zerbitzua indargabetzen du: eskumenak kentzen badira, zerbitzua prekarizatzen bada eta publikotasuna ez bada bermatzen, zerbitzua ahuldu egiten da".

**El objetivo último de la Ley de Prevención y Extinción de Incendios y de Salvamento es la privatización del servicio**

**La ley precariza las condiciones laborales; se fomentan jornadas parciales; se regulan las figuras del voluntario/a y de la empresa privada; no se limita la interinidad; no aclara cuales son las funciones y objetivos de este servicio; se abre la puerta a hacer negocio con la formación...**

Lege berria aurrera aterako balitz, 'langile boluntarioaren' figura ezarriko litzakete. Ekaitz Oiangurenek salatzen duenez, "funtsezkoa da suhiltzaileak prestakuntza egokia izatea edozein arazoren aurrean ahalik eta berme gehienekin aurre egiteko. Lege honek formazioaz hitz egiten du, baina ez du inondik inora kalitatezko formazioa eskaintzen eta bermatzen. Onartezina da horren garrantzitsua den zerbitzu hau trebakuntzarik gabeko lagunen esku uztea".

**Ez du publikotasuna blindatzen.** Legea aztertu ostean, Oiangurenek argi du azken helburua zerbitzuaren pribatizazioari ateak zabaltzea dela. "Legeak ez du esaten zerbitzua pribatizatu behar denik, baina zergatik ez du jartzen publikoa izan behar duenik bere osotasunean? Zergatik ez du hori bermatzen? Lehen lerrotik azken lerroraino enpresetako suhiltzaileez, suhiltzaile boluntarioz, lanaldi partzialeko suhiltzailez edo formazio pribatuaz hitz egiten du. Honek lan-baldintzak asko prekarizatuko ditu".

Ekaitz Oiangurenek azpimarratzen duenez, Eusko Jaurlaritzak hausnartu beharko luke zergatik duen suhiltzaileen kolektibo osoa lege honen kontra. “Orain arte egin diren mobilizazioak ikusi besterik ez daude. Une horretan guardian zeuden suhiltzaileak kenduta, gainontzekoak antolatu diren manifestazio eta ekintzetan hartzen zuten parte. Guk gure helburuak lortu arte mobilizatzen jarraituko dugu”.

Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko suhiltzaileen ezinegona agerian jarri du. Hala ere, haserrea lehenagotik zetorren. “Suhiltzaileek, langile publikoak diren neurrian, gainontzeko langile publikoek jasan dituzten murrizketak sufritu dituzte. Baina hor badago bereziki jasan duten murrizketa bat: langileen artean egon den aldaketa. Askoz suhiltzaile gehiago behar dira, eta, batez ere, askoz suhiltzaile finko gehiago behar dira. Behin-behinekotasuna %30tik gorakoa da sektore honetan, eta arazoa areagotu egin da azken urteetan. Jaurlaritzari esan nahiko genioke ea gai honen inguruko eskumena edukita eta lege-proiektu bat garatzen ari delarik, zergatik ez duen arazo honekin amaitzeko ezer egiten. Emergentzia eta suhiltzaile zerbitzura gero eta diru gutxiago bideratzen da, eta horrek ondorio larriak ditu, noski”.

**“Nabarmena da suhiltzaile falta”.** Jon Andoni Bilbao, suhiltzaileen sarjentua eta ELAren ordezkariak, goitik behera berresten ditu Oiangurenen kezkak. “Legea bere horretan onartuko balitz ondorioak oso larriak izango lirateke. Inguruko hainbat tokitan gisa honetako legeak onartu dituzte, eta ondorioak oso kaltegarriak izan dira. Joera zerbitzua pribatizatzea izan da, agerikoak diren emaitza kezkagarriekin. Legeak eskaintzen dugun zerbitzua okertu besterik ez du egingo. Suhiltzaileak oso kezkatuta daude. Orain arte ere kezka eta arazo ugari genituen, baina egitasmo hau gure haserrea piztu duen azken kolpea izan da”.

Jon Andoni Bilbao normalean Iurretako parkean egoten da, baina Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dauden beste hainbat parketan ere egoten da. Bilbao Iurretako suhiltzaile-parkearen egoeraz mintzo da, Bizkaiko gainontzekoen egoera antzekoa dela azpimarratu arren –Bilbokoa udalaren menpe dago–. “Gaur egun arazo asko ditugu, baina garrantzitsuena dugun suhiltzaile falta da. Soilik epe luzeko bajak kubritzen dira, bi hilabete baina gehiagokoak. Lanpoltsak ere ez dira betetzen. Arazo larriak ditugu parkeetan egon beharreko gutxieneko suhiltzaile kopurua betetzeko. Eta, askotan, suhiltzaileak parke batetik bestera mugituz konpontzen dute arazoa”.

Abenduan Bizkaiko hainbat gunetan izan ziren sute handiek agerian utzi zuten Jon Andoni Bilbaok salatzen duena. “Hor argi eta garbi ikusi zen jende gutxi zegoela horrelako ezbehar handi bati aurre egiteko, ez zegoela ezer prestatuta. Egoeraren larritasunaren aurrean asko izan ziren euren borondatez lanean aritu ziren suhiltzaile profesionalak, eta horrek eragin zuen suak askoz ere kalte gehiago ez sortzeak. Baina, noski, hori ez da bidea”.

Langile faltarena ez da ikusten duen arazo bakarra. “Antolakuntza aldetik ere baliabide eta funtzionamendu hobea beharrezkoa da horren garrantzitsua den zerbitzu hau eskaintzeko. Esaterako, larrialdi zerbitzuekin –112 zerbitzua– koordinazioa nabarmen hobetu beharko litzateke. Askotan oso berandu pasatzen zaizkigu abisuak. Era ezberdinetako erreskateak egiteko orduan ere antolakuntza gabezia nabarmenak daude. Administrazioak arazo hauei ere ekin beharko lieke lehenbailehen”.

**RAUL VILORIA,** BOMBERO DEL PARQUE DE GASTEIZ

## “Tenemos que seguir exigiendo servicios públicos de calidad”

**La situación en el parque de bomberos de Gasteiz, perteneciente al ayuntamiento, es un claro ejemplo de la importancia de la lucha de las y los trabajadores para mejorar los servicios públicos,** en este caso, el servicio de bomberos. Así lo destaca Raul Viloria, que afirma que la situación en Gasteiz ha mejorado el último año. “Hace un año la situación era pésima, con graves carencias de personal. Sin embargo, en la última OPE debido a la lucha de las y los bomberos conseguimos que se ofertaran 32 plazas, cifra que se ajustaba mucho más a las verdaderas necesidades. Seguimos teniendo cosas que mejorar, pero gracias a la movilización hemos conseguido por ahora una situación mejor”.

Viloria destaca, sin embargo, la necesidad de no bajar la guardia. “Tenemos el problema de que los próximos años se jubilará una parte importante del personal, y no podemos permitir volver a la situación de hasta ahora hace un año: eventualidad, falta de personal, evidentes necesidades sin cubrir... En este sentido, tenemos que tener una lucha constante, porque si se hacen OPEs cada 7 u 8 años, por ejemplo, dentro de poco vamos a volver a tener el mismo problema”.

La lucha y movilización de los bomberos es vital en los parques de Araba. Al fin y al cabo, hay evidentes carencias como consecuencia de la falta de recursos en este servicio tan elemental. Un ejemplo reciente fue la muerte como consecuencia de un incendio de una persona en diciembre en Valdegovía. El incendio se produjo de madrugada, y como el parque de bomberos más cercando –Espejo– no ofrece el servicio de 24 horas, tuvieron que acudir las y los bomberos de Gasteiz. Para cuando acudieron, 40 minutos más tarde, la situación ya era desoladora.

En opinión de Raul Viloria, esto no puede volver a suceder. “La situación en las diferentes UCEIS –Unidad Comarcal de Extinción de Incendios y Salvamento– que hay actualmente en Araba –Laguardia, Espejo, Agurain y Campezo–, dependientes de la Diputación Foral, es muy preocupante. Actualmente, ninguna UCEIS da servicio las 24 horas del día, con las consecuencias que ello conlleva. Además, en varios casos los parques también tienen evidentes carencias en cuanto a infraestructuras e instalaciones. Hechos que podrían agravarse en caso de que la ley que está tramitando el Parlamento Vasco salga adelante en los actuales términos”.



# Agur eta ohore Patxi Agirrezabalari

URTARRILAREN 12AN PATXI AGIRREZABALA –ELAren KOMUNIKAZIO ARDURADUNA ETA ARGITALPEN HONEN ZUZENDARIA– ZENDU ZEN ZARAUTZEN, 57 URTE ZITUELARIK. DENA EMANDA ERE, ASKO HUEN, ORAINDIK, EMATEKO. GOIZEGI UTZI GAITUK, ADISKIDE



**Irudian urtarrilaren 14an Patxi Agirrezabalari Zarautzen eskaini zitzaion omenaldia. Bertan bildutako jendetza eta jasotako dolumin ugariek agerian uzten dute ELAn utzi duen aztarna sakona.**

**› ERREDAKZIOA**

**Urtarrilaren 14an ELAk omenaldia egin zion Patxi Agirrezabala Mundiñanori bere sorterrian, Zarautzen.** Agirrezabala, ELAko Batzorde Eragileko kidea eta komunikazio arduraduna, urtarrilaren 12an hil zen, gaixotasun baten ondorioz. Omenaldi honekin ELAk bere aitortza egin nahi izan zion Agirrezabalari, Euskal Herriko langile-klasearen zein gure sindikatuaren alde egindako lan eskerga eskertuz.

Zarautzeko Santa Maria parrokian egin zen hiletaren ostean, ELAk azken agurra egin nahi izan zion. Lehenik sindikatuko kide eta lagun Jose Angel Urbietak, Iñaki Olidenek eta Garbiñe Erbilek Agirrezabalak horren gustuko zuen Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak* kanta eskaini zioten. Bere aldetik, sindikatuko idazkari nagusiak, Adolfo Muñozek, Agirrezabalaren ibilbide pertsonal zein sindikala goraipatu zuen bere parte-hartzean. Ondoren, Urbietak bertso hunkigarria eskaini zion, Benito Lertxundiren *Itsasoari begira* doinuarekin.

*Besarkada bat etxekoei ta*
*Lagun guztiei hasteko*
*Hainbeste gauza ditugu Patxi*
*Uneotan eskertzeko*
*Gugatik egin duzun guztia*
*Bihotzetan deu gordeko*
*Langile, lagun, gau eta egun*
*Beti prestu laguntzeko*
*Horregatikan elkartu gera*
*Maite zaitugu esateko*

Azkenik, Izaro Mujikak eta Iker Urruzolak ohorezko aurreskua dantzatu zioten.

**"Lagunak baino ez zituen sindikatuan".** ELAko idazkari nagusi Adolfo Muñozek sindikatu osoaren aitortza eta errekonozimendua adierazi nahi izan zuen urtarrilaren 14an Patxi Agirrezabalari egin zitzaion omenaldian. Lehenik bere ama (Karmen), emazte (Belen), seme (Mikel) eta anai-arrebei, eta, ondoren, ingurukoei, lagunei eta beste hainbat sindikatu eta eragileen izenean hurbildu ziren guztiei. "Denok botako dugu faltan Patxi", adierazi zuen. Urte luzez irakaskuntzan lankide eta lagun izan zuen Joseba Iturberi hitzak lapurtuz, Muñozek Agirrezabalaren militantzia goraipatu zuen. "Beti zegoen edozerta-rako prest. Lanak inoiz ikaratzen ez zion horietakoa zen. Lanari heldu eta aurrera egiten ziona. Beti prest edozer egiteko, beti borondate onarekin, beti laguntzeko prest gutzi-guztioi".

Baina, ororen gainetik, Patxi Agirrezabalaren gizatasuna goraipatu nahi izan zuen ELAko idazkari nagusiak. "Patxik lagunak baino ez zituen sindikatuan. Beti akordatzen zen besteez.

## SINDICALISTA, PERSONA Y AMIGO EJEMPLAR

**El 12 de enero una terrible noticia sacudió a todas las personas que formamos parte de ELA:** Patxi Agirrezabala, responsable de Comunicación y miembro de la ejecutiva, fallecía en Zarautz de enfermedad. Si la muerte siempre es dura, en este caso lo fue más por la rapidez del desenlace. La incredulidad daba paso al dolor y la consternación al conocer la muerte del compañero y amigo.

Patxi Agirrezabala comenzó su trayectoria sindical en la ikastola Salbatore Mitxelena, de Zarautz, donde durante años fue militante y representante del sindicato. De ahí pasó a ser responsable de Enseñanza de ELA. Tras varios años en el cargo adquirió diferentes responsabilidades en la Federación de Servicios Públicos. Tras fusionarse los servicios públicos y los publificados en ELA-Gizalan, fue elegido secretario general de la misma. En ese cargo estuvo hasta el año 2007.

Los últimos años, desde 2007 hasta 2016, fue miembro del Comité ejecutivo, ejerciendo las funciones de responsable de Comunicación.

Pero, más allá de su trayectoria sindical, es imprescindible destacar su enorme valía humana, como lo demuestran las numerosas y sentidas muestras de cariño que ha recabado el sindicato.

Desde ELA y esta publicación, que era la suya, queremos enviar un enorme y sentido abrazo a toda la familia y personas allegadas de Patxi Agirrezabala en estos duros momentos. Goian bego.

## Patxi, quienes nos quedamos aquí seguiremos el proyecto en el que tú creías. Seguiremos haciendo sindicalismo en favor de la clase trabajadora y de nuestro pueblo

Denon urtebetetzeak gordeta zituen memorian. Eta denoi gogorarazten zizkigun: 'ez ahaztu, gaur honen edo haren eguna da!'".

"Azken momentura arte lagunen gertu egon nahi izan du. Hil bezperetan sindikatuko kide eta lagun Xumai eta Josemari Larrañaga zoriondu zituen, euren urtebetetzeak zirelaeta. Halakoa zen Patxi".

Azken asteetan bere osasunak nabarmen okerrera egin zuen arren, bere kontuei garrantzirik ematen ez ziela ematen nabarmendu zuen Muñozek. "Erietxean egon zenean bisitan joan eta bere gaixotasunari garrantzia kentzen saiatzen zen. Oroitzen dut elkarrekin egon ginen azken aldian literaturari buruzko hizketaldi luzea izan genuela. Aipatu zidan Joseba Sarrionaindiaren *Lapur banden etika ala politika* eta Imanol Murua Uriaren *Armak ekarri* liburuak irakurtzen ari zela, eta bi liburu horiek irakurtzeko gomendatu zidan. Noski, kasu egin nion. Sarrirena Gabonetan irakurri nuen, Muruarena uneotan ari naiz irakurtzen. Arrazoi zenuen, Patxi, oso liburu onak dira".

Azkenik, Muñozek mezu honekin amaitu nahi izan zuen bere partehartzea. "Patxi, hemen gelditzen garenok zuk sinesten zenuen proiektuan jarraituko dugu. Euskal Herrian langile klasearen eta gure herriaren aldeko sindikatua egiten jarraituko dugu. Azken finean, sindikatua egiten, oso beharrezkoa delako. Tinko eta gogor, zu bezala".



# MAISU LANBIDEZ, MAISU HARREMANETAN ETA LAGUNARTEAN

**Patxi Agirrezabalak,** beste hainbat zarauztarrek bezala, La Salleko eskolan egin zituen lehen ikasketak. Gero Donostian irakasletzarako ikasi eta historian ere lizentziatura atera zuen. Bere sorterriko Salbatore Mitxelena ikastolan hasi zen lanean; han, ELAko ordezkaria zela, irakaskuntza zeraman Xanti Ugarteren proposamena iritsi zitzaion: "Zarauzko ikastolako atarian elkarrizketa luze bat izan genuen. Proiektua bagenuen eta ekipoa osatzen hari ginen. Patxirekin dena erraza izan zen eta izan da. Proposatutako denari baiezko borobila eman zion. Ekipo sendoa osatu genuen eta urratsak ematen hasi ginen Ikastoletako langileen lan harremanak sendotzen".

Bazekien lana gogor egiten: "goizeko zazpiak arte negoziatu eta batzuk prentsa-oharra idazten ari ziren bitartean besteek asanbladak prestatzen genituen, baina berari ez zitzaion asko antzematen", dio irakaskuntzan kide izan zuen **Jesus Mari Larramendi**k. **Joseba Iturbe** lankide eta lagun minak dioen bezala, "lankide benetan ona, lagun ezin hobea. Eredugarria zen eta da Patxi. Ahalmen handiko militantea. Lanak inoiz ikaratzen ez zion horietakoa. Lanari heldu eta aurrera egiten ziona; detaile guztiak aurrez ondo jorratuak izaten zituena beti". Baita xehetasun txikietan ere: sekula ez zuen inguruko inoren urtebetetzean huts egiten, zorionak emateko. Joseba Iturbek nabarmentzen duenez, "arduradun bezala izan dugunok beti oso babestuak sentitu gara. Egoera larritan ere sekulan ez zintuen salduta uzten. Beti laguntzeko prest. Oso gertuko pertsona izan da Patxi". Baina, **Xanti Ugarte**k dioen moduan, "dena ez zen lana. Patxi, Jesus Mari Larramendi, **Joxeanjel Ulazia, Joxe Mari Eizagirre** eta neu bilerak, paperak, eztabaidak eta abarretik aparte afari batzuk ere egin genituen Mutrikuko soziedadean. Han ere Patxik maila ematen zuen. Hitz egindakoa paperean ongi jaso, etxera joandakoan ordenatu eta hurrengo egunerako dena prestatura edukitzeko, baina joan aurretik hain maiteak zituen abestiei errepaso goxo bat eman gabe ez zuen bukatzen".



Irakaskuntzan lankide izan zuen Larramendik dioen moduan, zehatza eta puntuala zen; "negoziatzen gogorra, baina gero solaskidearekin harreman ona izan zuena; ez zen bere onetik ateratzen". Sindikatuko beste lagun batek, **Iñigo Zubeldia**k esaten duen bezala, "desadostasunean ere, ahotsa altxatzen ez zuena, hitz onez bideratzen zekiena". Joseba Iturbek ere hau azpimarratzen du: "Bai lan arloan bai harreman pertsonalean ez da egongo pertsona bakar bat ere Patxitaz hitz txar bat esango duenik. Nik 27 urte hauetan ez dut ezagutu, eta ez dut ezagutuko ere". Larramendik gogoratzen duen bezala, "aurpegia ematen zuen: zerbait esan behar zenean, gustukoa ez izan arren, sekula ez zen ezkutatzen; arazoak izanez gero ez zituen saihesten. Berezko liderra zen". Iturberen laburpena: "Maisu lanbidez, maisu organizazioan, maisu harremanetan, maisu lagunartean". Gero, Zerbitzu Publikoen federazioaren ardura zeukan **Josemari Larrañaga** Metalera pasa zenean, Agirrezabalari eman zion lekukoa: "Esan didate Metalera pasatu behar naizela; orduan hiri tokatzen zaik Zerbitzu Publikoen Idazkari Nagusia izatea. 'Horretarako gaude', esan zidan. Halaxe zen gure Patxi, beti prest. Keinu txar bat ere ez. Beti prest. Edozer gauzetarako, bai gauza txikia izan: 'Patxi, bilera batera joan behar da'; 'Patxi, idatzi hau egin behar dugu': Patxi beti prest. Baita ere gauzak handiak izaten zirenean, 'Patxi, Kongresuko lehendakari izan behar zera', prest; 'Patxi, ahaldun nagusiarekin bildu egin behar da', prest. Edo kasu hontan bezela, Zerbitzu Publikoko Idazkari nagusia izateko, prest. 'Hortarako gaude' zen bere erantzuna".

Prestutasun bera agertu zuen 2007. urtean Batzorde Eragileko zein komunikazio arduradun lanetan German Kortabarriaren lekukoa hartzea egokitu zitzaionean. Egin ohi zuen bezala gogotsu ekin zion erantzukizun berriei. Berak ere aitortzen zuenez erronka handia zen berarentzat, ordura arte egin gabeko funtzio berriak gainean hartzea egokitu zitzaiolako.

**Azken aldian, beraz, bera izan dugu sindikatuko komunikazio arduraduna.** Komunikazioari dagokionez arduradun nagusia izan arren beti-ere besteei ahotsa ematen saiatzen zen. Ez zuen gogoko inolako protagonismo berezirik, sindikatuaren komunikazioa talde-lana zela sinetsita baitzegoen.

Ardura berrietan ere politika eta gizarteko arlo ezberdinetako hainbat jendek egiaztatu ahal izan du Agirrezabalaren gizatasuna, gauzak argi baina modu onean esateko gaitasuna. Ikastoletako liberatu ohi batek idatzi duen bezala, "Patxiren bizitza eta argia itzali bada ere, indarra izan dezagula berak erakutsitako bidea jarraitzeko".

# #1200EUROTIKGORA: FIRMAS CONTRA LA PRECARIEDAD




› ERREDAKZIOA

El pasado 2 de diciembre tuvo lugar la presentación oficial de la iniciativa **#MÁSde1200euros** ante los medios de comunicación. Sus protagonistas dejaron atrás el anonimato para explicar las razones de su iniciativa. Recogemos el manifiesto que han elaborado y te animamos a firmarlo:

**Hablemos de salarios. Hablemos de precariedad.** Precariedad es no poder planificar nada a medio y largo plazo, hacer precaria tu propia vida. Precariedad es escasez, depender de la ayuda de otras personas. Precariedad es indefensión, cuando vulneran tus derechos y tu dignidad. Precariedad es sentir que casi todo lo importante escapa a tu control. Precariedad es, también, todo lo contrario a un trabajo digno.

Hablemos de las personas en paro, muchas de ellas desde hace mucho tiempo; jóvenes con contratos para una temporada; mujeres y hombres en la economía sumergida; empleadas y empleados de ETTs, subcontratas o empresas de servicios; mujeres que ganan menos que los hombres; personas contratadas a tiempo parcial; trabajadoras y trabajadores inmigrantes.

Hablemos de la desprotección de quienes no tienen empleo, en su mayoría sin ingresos. Hablemos de los recortes en las prestaciones sociales...

Hablemos de personas heridas y muertas en accidentes laborales. De la juventud que emigra desesperada.

Debemos cambiarlo todo. El reparto global y local de la riqueza. Porque las personas no somos mercancía y tampoco lo es nuestro trabajo. Porque toda persona debe tener derecho a su sustento.

La economía crece, pero eso no resolverá los problemas necesariamente. Porque aumentan las desigualdades y se extiende el trabajo precario para la mayoría. Una precariedad que es más sangrante en las mujeres y en los jóvenes.

La mayoría de nosotros y nosotras necesita trabajar por cuenta ajena para vivir, y por ello pedimos que nuestro salario sea, al menos, de 1.200 euros. No es pedir demasiado: está por encima de la miseria que hoy gana mucha gente; y está muy por debajo de los ingresos de esa minoría que se enriquece beneficiándose del trabajo ajeno.

Queremos recoger miles de firmas con ese propósito, cuantas más mejor, para combatir la precariedad en el mundo del trabajo. Y hacemos un triple llamamiento: a la ciudadanía y sus organizaciones, para que trabajen por la justicia social; a las instituciones, para que garanticen salarios más justos, pongan freno a la extensión de la precariedad y establezcan prestaciones sociales dignas; y a las empresas, para que paguen salarios por encima de 1.200 euros, porque cualquier ser humano vale mucho más que eso.

Queremos reunir miles de firmas a favor de un sueldo mínimo de 1.200 euros. Firma tú también. Entre todos y todas haremos frente a la precariedad.

**¡Entra en MÁSde1200euros.eus o 1200eurotikgora.eus y firma el manifiesto!**

FRANQUEO CONCERTADO
NO 08/129